# ...eta kitto!

856 zkia.
2013-VII-12

# III. Rallysprint-a hilaren 20an




EUKi
ARTEKARITZA
Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99
AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean

# IRAZABAL
clínica dental





**Antonio Murillo doktorea**
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA



**Susana Sierra doktorea**
ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**Maitane G. Iñiguez doktorea**
ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA



ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera
**08.00-22.00**
Zapatuetan
**10.00-14.00**

*Abuztuan ere zu hartzeko prest gaituzu!!!*



IRAZABAL HORTZ-KLINIKA
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com - **info@clinicairazabal.com**

# ASTEAN ESANAK

"Norvegiarrek hain bizi-maila altua dute, non errudun sentitzen diren. Txirotasunik izatekotan, ez da gizarteagatik, desestrukturazio pertsonalengatik baizik. Inbidia ematen du, benetan. Hala ere, perfekzioa ez da existitzen: paradisuan ere moskitoak daude."
(Xabier Bañuelos, bidaia-kazetaria)

"Iruditzen zait emakumeen Eusko Tren Liga gehiago egiten dela konpromisoagatik, ez duela benetako bultzadarik. Aldiz, Kontxan benetako apustua egin da emakumeen banderaren alde"
(Joseba Fernandez, arraun-prestatzailea)

"Hego Amerika, Asia eta abarretatik etorriak soilik ditugu etorkintzat, ahaztuta Espainiatik etorritakoak ere etorkinak direla. Integratzeari uko egiten dion etorkina kolono bilakatzen da herri menderatuetan, botere propiorik gabe integrazio hori bultzatzeko tresnarik ez baitauka"
(Pako Aristi, idazlea)

"Askorentzat errazagoa da Kairoko indarkeria matxista identifikatzea sanferminetan gertatzen dena baino"
(Josebe Iturrioz, filosofian lizentziaduna)

## *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

JIBIXA.- Txipiroia. *"Jibixa txiki txikixak daukaguz afaritarako".*
JIKARA/KIKARA.- Taza. *"Arrautzia egositta hartzeko bere jikaria zeukan".*

# eskutitzak

### KARMENGO PARROKIAREN ESKAINTZA

Joan den astean ...eta kitto!-n agertu zen E.E.F.-ren eskutitza ikusi orduko, harrituta geratu ginen Eibarko karmeldarrok, gure parrokiako kideak moduan. Berak esaten du Eibarko parroki biren artean mugitzen dela eta ez duela aurkitu San Joan bezperan euskaraz emandako meza bat bera ere. Ez dakigu zein parrokia izango diren ezagutzen dituenak. Karmeldarren komentuan, Karmengo parrokian, domekero bi meza eskaintzen ditugu euskaraz, goizeko 09.00etan eta eguerdiko 12.00etan. Beste meza batzuk elebitan izaten dira gure elizan, irakurgaiak eta abestiak euskaraz edota erdaraz eginez; baina aipatutako ordu horietan mezak euskara hutsean izaten dira. Orduan, E.E.F. agurgarri hori (jaun edo andrea, ez dakigu-eta), gonbidatzen zaitugu gurekin mezatan parte hartzera. Gainera, hauxe esango dizugu: izaten baduzu iradokizun edota sujerentzia bat gure meza egiteko moduari buruz, pozik entzungo dugula zure iritzia. 1935. urtean heldu ginen gu, karmeldarrok, Eibarrera; gainera, oso ondo sentitzen gara eibartarren artean, eta betidanik eskaini ditugu meza batzuk euskara hutsean. Ikusi, mesedez, gure ordutegia.

**KARMENGO PARROKIA (eibar karm@gmail.com)**

### PAUSOETAKO BIDEA GARBIKETA FALTAN

Sarritan joaten naiz Arratera eta pausoetatik igotzea dut gustoko, eibartar askok bezalaxe. Ez dakit noren ardura izango den bide horren zaintza, baina Azitainetik lehenengo pausoraino dagoen tarte horretan "ur zikinak" zapaltzen joan behar da (nazka handia ematen du). Gainera, ibilbide hori sastraka eta asunez josita dago. Nire ustez igoera polit hori ez da Arrateko jaietarako bakarrik txukundu behar; urtean zehar ere garbi mantendu beharko litzateke.

**MERTXE AGIRRE**

### ORDUTEGI LABURREGIA UMEEN AISIALDIRAKO

Urtero ekainerako azken egunetarako eta uztailerako prestatzen den Udan Jolasetan programa esango nuke gero eta motzagoa geratzen zaiela bai umeei eta baita horien gurasoei ere. Astixa aisialdi taldeak, Udalarekin batera, Haur Hezkuntzako 2. zikloko 3. mailakoentzat pentsatutako programak pare bat ordu eskaintzen dizkie egunero sei urtera arteko ume horiei (10.00etatik 12.00etara) eta hori zaila da ezkontzeko gurasoek lana egin behar badute. Hain laburra izanda, ez da hain arraroa batzuk Elgoibarrera jotzea, bertako eskaintza zabalagoa baita.

**A.A.**

**ERREDAKZIOAREN OHARRA**
Esku artean duzuen **ale honekin amaitzen dugu ikasturtea**. **Hurrengoa**, oporretatik bueltan eta Arrateko jaien aurretik, **irailaren 6an** jaso ahal izango duzue. Ondo pasa oporrak eta bueltan ikusi arte!!!


...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Escuderia Eibar
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.150 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*



*Egun osoko jardunaldixan hainbat ekitaldi antolau ziran.* LEIRE ITURBE

## AireArte azoka arrakastatsua

**Zona Diez alkartekuak aurreko barixakuan antolatutako AireArte 2013** azokiak arrakasta haundixa euki eban, egunian zihar eguzkixak Errebalgo aparkalekua gogotik berotu eban arren: moda, artea eta gastronomixia, hirurak alkarrekin eskindu zittuen lehelengoz egindako ferixan eta Zona Diez alkartekuak pozik dagoz jendiak emondako erantzunarekin. Alkarteko denda eta bestelakuak euren eskintza kalera etaratziaz gaiñ, azokaren inguruan jarduera osagarrixak egin zittuen: bestiak beste ardau, gazta eta beste batzuren dastaketia, pintura eta dekoraziño erakusketak eta dantza eta gimnasia erritmika erakustaldixak egin zittuen. Eta illuntzixan dendetan salgai daken arropekin eta Ion Fiz diseñadoriak okasiñorako lagatako beste batzurekin desfilia egiñ eben.

## Zazpi kale asfaltauko dittue



**Udia kaliak asfaltatzeko aprobetxauko dabe** eta, aurreikusitta eguan moduan, herriko zazpi tokittan kaliak konpontzeko biharrak hasiko dittue hamendik egun batzutara, abuztuan, Udaletik aditzera emon dabenez: Tiburzio Anitua kaletik Otaola hiribideraiñoko tartian, Ubitxako atzekaldian, Jardiñetan (10. zenbakitik 12.era), San Juanen (9. zenbakitik 11.era), Errebalen, Bittor Sarasketan (12. zenbakitik 14.era) eta Barrenan (8. zenbakitik 38.era). Biharrak 250.000 euroko presupuestua dake. Hortik aparte, udan ez dabe aparteko biharrik eingo: asfaltauak albo batera lagata, Txaltxa Zelaiko parkia estaltzeko biharrak eta Urkin igogaillua ipintzekuak izango dira inportantienak.



SILBIA HERNANDEZ

## San Fermin ospatu eben Astixakuekin

**Urteroko moduan, Astixako udaleku irekixetan parte hartzen** diharduen umiak San Fermiñen omenezko jaixa ospatu dabe gurian be: aurreko barixakuan santuarekin kalejiran ibilli eta gero, Untzagan Gorritiren zezentxoekin amaittu eben jaixa, entzierro txikixan ondo baiño hobeto pasauta.



## Pagatxakuak Frantzian

**Pagatxa andrazkuen alkartiak asteburu osoko exkursiñuarekin** esan detsa agur ikasturtiari, urteroko moduan: erretratuan ikusten dittuzuenak edarto pasau eben toki diferentiak bisitatzen. Bestiak beste Troyes, Champagne eskualdeko hiriburua izandakua, gaur egunian bertako hiriburua dan Reims eta harresiz inguratuta daguan Provins Erdi Aroko hirixa ikusi zittuen.

## 600 kilo janari

**Eibarko Sozialistak premiñan daguazeneri laguntzeko** kanpaiñia egin dabe oin dala gitxi eta, Gabonetan lez, janarixa batzen jardun dabe Casa del Pueblon. Batez be esnia, olixua, lekaliak, pasta eta kontserbak eskatu zittuen eta, danak batuta, 600 bat kilo alkartzia lortu dabela emon dabe aditzera. Lagundu daben guztieri eskerrak emotiarekin batera, urtiaren amaiera aldera atzera be antzerako kanpaiñaren bat egingo dabela aurreratu dabe.

## Su hartu zeban Alfak



**Eguazten goizian, 11.30xak aldera su haundixa piztu zan Alfan**, aluminixuan mikrofusiñua daguan zatixan. Tallarra erretzen hasi eta segiduan ke baltz-baltza urten zan eraikiñaren gaiñetik eta, badaezpada, pareko etxietan bizi diraneri leihuak itxitta eukitzeko gomendatu zetsen. Gaiñera, sua hasi zanian biharrian eguazen 200 bihargiñak kalera etara zittuen suhiltzailliak eta ertzaiñak sua amatatzen eben bittartian. Ertzaiñak esandakuaren arabera, sua argizarixakin betetako bidoi batzuetan sortu eta oso azkar zabaldu zan, bidoiak eztanda egiñ ebelako. Zorionez ez zan zauriturik egon, baiña atzo tallarrako ugazabak bihargiñekin billeria egitteko asmua zekan, kalte materixalak balorau eta aurrera begira euki leikien eragiña aztertzeko.

## Amaña bigarren astebururako prest

**Eguzkipian eta atseden hartzeko tarte txikixarekin, holan agurtu zittuan** Amañak aurtengo jaixen lehen asteburua. Aurreko barixakuan Kezka dantza taldiak botatako txupinazuarekin ekin zetsen egitarau bete-betiari eta domeka illuntzera arte egindako guztietan jende morduak hartu eban parte. Aurreko asteburuan baiño askoz be lasaixago, gaur atzera be jaixari ekingo detse: gaur eguardixan jubilauendako bazkarixa egin dabe Iruki sagardotegixan eta gabian, 21.30xetan Caserio tabernan Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolarixen parte-hartzia izango daben afarixa hasiko da.



*Paella-jana.* LEIRE ITURBE

## Arratietarako txosnak eta postuak

**Aurten Arrateko jaixetan salmenta posturen bat ipiñi nahi dabenak** uztaillaren 18rako (13.30xetarako) aurkeztu biharko dau eskaeria, Pegora Herritarren Zerbitzurako Buleguan (udaletxian). Eta txosnia ipiñi nahi dabenendako eskaeria egitteko epia be egun eta ordu berian itxiko dabe (hori be Pegoran egin biharko dabe). Kasu bixetan presentau biharreko agiri eta bestelakuen gaiñeko informaziño guztia Pegoran bertan eskuratu leike edo, bestela, www.eibar.net webgunian.

## autuan

### MUGI TXARTELA PEGORAN

**Udaletxeko beheko pisuan daguan Pegoran Mugi txartela eskatu eta kargatzeko aukeria eskintzen hasi dira aste honetan bertan. Kargatzeko, baiña, ez dabe dirurik onartuko, bakarrik txartelarekin egindako ordainketak onartuko dittue. Txartelak Gipuzkoako garraio publikuetan bidaiatzeko balixo dau eta Eibarren bertan autobus, Udalbus, Lurraldebus eta Euskotreneko trenetan erabilli leike. Txartelari buruzko jakin biharreko guztiak www.mugipuzkoa.com webgunian eskuragarri dagoz.**



### KARMENGO AMAREN JAIXA

**Karmelitetan Karmengo Amaren omenezko elizkizun berezixak egitten dihardue egunotan, tartian hillaren 16xan amaittuko daben bederatziurrena. Horrekin batera martitzenian, Karmengo Amaren egunian 08.30xetan eta 11.00etan mezia eta Karmengo Amari otoitza egingo dittue eta arratsaldian, 18.30xetan errosarixua eta Karmengo Amari konsagraziñua egingo dittue. Eta 19.00etan Parrokixako abesbatzaren parte-hartzia eukiko daben mezia eta hitzaldixa hasiko dira.**

---

# MARITXU AGIRREBEÑA ARRIOLA

*2013ko uztailaren 7an hil zen, 94 urterekin*



*Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin geratzen da.* AMAMA: BETIRAKO GURE BIHOTZETAN.

FAMILIAREN IZENEAN, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



*Ordaintzen ez diran lan horretako bat egin dabe 2013ko lehelengo bost hillabetiotan Klub Deportiboko hiru lagunak. Gure herrixaren inguruak ondo ezagutzen zittuen lehendik be eta, Bego Azpiri Ego Ibarra batzordeko idazkarixarekin ados ipiñi ondoren, Eibarko lurrak nondik nora doiazen markatzen dittuen mugarrixak lokalizatziari ekin zetsen. Edonundik ikusitta be, "oso lan serixua egin dabe". Behin baiño gehixagotan, "mugarri galduaren billa" jardun bihar izan dabe, han egon bihar zala eta haren billa. Horregaittik, aurretik zeken informaziñua osatziaz gaiñ, hainbeste inplikatu dira mugarri batzuk lokalizau eta atontzeraiño. Hirurak diñuen moduan, "ez goiaz iñoren lana zalantzan ipintzera. Guk geuria ahal dan eta hobetuen egitten ahalegindu gara". Ez dabe ahaztu nahi, dana dala, mugarri inguruan bizi diran basarrittarrak eskindutako laguntasuna.*



# Gure herriko mugarrixak iñoiz baiño agerixago

Baziran Klub Deportiboko mendi batzordeko hiru gizon, urtia hastiarekin batera, aspaldi egiñ ez dan lan berezi bateri ekin zetsenak. Bihar hori amaittu eta handik bost hillabetera Ego Ibarra batzordian aurkeztu daben berberak dira: Julian Etxeberriak, Periko Iriondok eta Angel Treviñok "Eibarko mugarrixak: ikerketa-lana eta landa lana" egin dabe, gure udalerriko mugarri guztien egoeria aztertuta aldi berian. Aittatutako batzorde horretan emon zeben jakittera Eibarko udalerrixak Ermua, Mallabia, Markiña-Xemein, Elgoibar, Soraluze, Bergara, Elgeta eta Zaldibarrekin dittuan 70 mugarrixen barri zihatza: guriak beste zortzi herrixekin dittu-eta mugak.





*Angel Treviño eta Periko Iriondo lokalizatutako mugarri baten onduan.*

Ikerketa eta landa-lan hori egiteko, 1927xan herriko mugarrixak seiñalatzeko gaiñerako udal guztiekin batera egindako aktak hartu dittue oiñarri moduan; horrek aktok orduan Eibarko alkatia zan Ignacio Anituak, hamengo ziñegotzixekin, perituekin eta idazkarixarekin, mugakide ziran gaiñerako herri guztietako alkate bakotxarekin eta idazkari, peritu eta ziñegotzixekin batera jasotakuak dira. Harrezkero, eta badira urtiak (86 akaso!), Eibarren ez da barriro horrelako akta-jasotze ekitaldirik egin.

Lan hori egitteko, lehelengo udalerriko mugaren lerruak dittuen kantoi, baztar edo izkin guztien UTM koordenadak kalkulatu zittuen (172 puntu izan dira guztira). Eta jarraixan honako pausuak emon dittue: mugarri bakotxari zenbakixa emon, X eta Y koordenadak jaso, zeiñ alturatan daguan hartu, argazkixak etara, harri-mota zein dan zihaztu, harrixaren itxuria, inskripziñuak, mugarrixa herri-artekua edo probintzien artekua dan zehaztu, leku-izena jaso, zeiñ egoeratan daguan esan eta aurreko mugarrittik zenbat metrora daguan zehaztu. Horrek datu guztiok, jakiña, ordenadorian sartu dittue.

## EIBAR HOBETO EZAGUTZEKO AUKERIA

*"500 urtetan herrixak asko aldatu badira be, mugarrixak fijo geratu dira"*, diño hirukotiak. Kokapenari dagokixonez, *"normalian mendi bizkarretik juaten dira. Behin erreferentzixa horretan zagozela, hurrengua ikusteko moduan"*. Sasoi batian sokia erabilliko eben mugarrixak kokatzerakuan. *"Ofizialki"*, esaten dan moduan, 67 mugarri dagoz; baiña eurak 70 aurkittu dittue. Mugarrixak beste pista batzuk be emoten deskuez gure herrixaren errealidadiari buruz: *"Askok uste dabe Eibar Maltzagan amaitzen dala, baiña Saturixoraiño da Eibar: ibaiaren erdi hori be Eibar da"*, diño Treviñok. Urte birik behin Eibarko mendi itzulixa egitten dan moduan, mugarrixetatik egitteko posibilidadiaz galdetuta, baietz diñue: *"Ixuatik Barinagara da tokirik zaillena bueltia egitteko"*. Zenbateko perimetrua hartzen dabe mugarrixak? Galdetu eta berihala Etxeberriaren erantzuna: *"Linea zuzenak trazatuta, 22'3. Baiña oiñez egitteko, 26 bai gitxienez"*, diño prestu.

Lan ikusgarrixa izan da aurtengo urtarriletik maiatzera bittartian egindakua. Udalak, bere aldetik, Euskaltzaindiari bialdu detsaz batutako leku-izen guztiak, normalizatzeko eta mugarri bakotxari izen ofiziala emon ahal izateko. Bestalde, gaiñerako herri guztieri jakinaraziko jakue jasotakua, baitta Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Bizkaikuari be, egin biharreko zuzenketak eta ekarpenak egitteko. Ego Ibarra batzordian uste dabe lan hori herrixan hedatu bihar dala, modu batian edo bestian, *"interes historiko haundixa dakalako: herri-oroimenaren elementurik esanguratsuenak zaindu, gorde eta, hala egin biharra badago, konpontzeko: herrixaren mugarrixak, udalerriarenak berarenak"*.

**Mugarrixekin bake santua**

Gure herrixaren mugak 1493an kokatu ziran, Javier Elorzaren "Orígenes y evolución de Eibar" liburuan agertzen danez. Arrazoi nagusixa eibartarron eta ingurukuen artian eguazen arazuak konpontzia izango zan, *"olak-eta bihar zeben egurra nungua zan erabagitzia biharrezkua zalako"*. Badago mugarri bat, Elgeta eta Eibar artian, *"borrokaleku"* ipiñitta dakana, gauzak zelan konpontzen ziran aditzera emoten dabena. Geruago jarriko ziran lehelengoko mugarrixak, ez gaur egungo mugarrixekin, baiña bai sasoi hartako mugak zaintzen. Mugarrixak, azken batian, bakerako funziñua be betetzen dabelako.






*Julian Etxeberria eta Angel Treviño mugarrixaren ezaugarrixak zihazten.*

Harek sasoiak laga eta GPS-ak eskintzen dittuan bentajiak dakaguz gaur egun. Hirukotiak Udal Artxibuan daguan 1927ko aktaren kopixia, udal planua (1:10.000 eskalakua) eta Internetetik jasotako informaziñua hartu eta lanari ekin zetsan.

Nondik hasi euren lana? *"Hiru udalerriko mugarri batetik hastia pentsau genduan: Ariztiburutik. Eta horreri jarraittu gentsan, ibilbidia erlojuaren zentzuan egiñaz. Goizetan mendira juaten giñan eta arratsaldetan jasotako argazkixak eta datuak ordenadorera pasatzen genduazen"*. Hori bai, GPS-a, kamara digitala, ordenadoria eta blok-az aparte, atxurra eta igitaixa be lagun izan dittue noizbehinka.

Hareharrizkuak eta kareharrizkuak dira mugarri gehixenak. *"Berdezkak be badagoz"*, diño umoretsu Iriondok, kasu batzuetan harrixok daken goroldixuari erreparatuta. Porlanezkuak be badira: *"Ipiñi dirazen azkenak, oin dala hamar-hamabi urtekuak, Bizkaixa eta Gipuzkoa mugatzen dabenak"*. Mugarri gehixenak egoera onian dagozela diñue, *"batez be, ikusitta 86 urte pasatu dirala eta, bittartian, baso-mozketan egon dirala, bidiak zabaldu dirala. 1764kua da Eibar eta Bergarako bat. Dozena erdira ez dira iristen apurtutakuak, kasu batian tximistak jotakua"*.

Tokixetara hirutan eta lautan juanda be, "badira sei mugarri aurkittu bakuak, batzuk gaiñera garrantzizkuak herrixen arteko mugak finkatzerakuan". Lan guzti horretan inguruko basarrittarren laguntasuna izan dabe, *"eskertzekua benetan"*. Jose Luis Gisasola (Sosola), Maritxu Solozabal (Elorretabe), Juan Joze Zuluaga (Oregizar), Jose Arizmendiarrieta (Aboagaazpiko), Juan Mari Irusta (Zaturio), Jose Mª Hormaetxea (Iraegi), Jose Mª Agirre (Berdengillo) eta Pedro Gisasola (Gisasola) aittatzen dittue lan horretan.

EIBAR
Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04
CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1 Kardiologia
2 Zirugia
3 Dermatologia
4 Dietetika eta Nutrizioa
5 Analisi Klinikoak
6 Ortodontzia
7 Otorrinolaringologia
8 Pediatria
9 Psikiatria
10 Neurologia (BERRIA)
11 Barne Medikuntza
12 Radiologia
13 Urologia
14 Traumatologia
15 Koloproktologia
16 Erizaintza
17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
18 Foto-depilazio Unitatea



# GREMIOEN

## lanak ALTUERAN


EibarVertical
Aldamiorik gabeko lanak altueran
www.eibarvertical.es
Errekatxu, 11 - behea
Tel. 674 81 41 65 / 615 74 97 81
www.eibarvertical.es eibarvertical@eibarvertical.es


## ANTENAK


BALATZ C.B.
instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

trinmer
Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com
TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK


## AROTZAK


IÑAKI
Egurrezko mota guztietako lanak
Ateak - Tarimak Altzariak
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

SUA
SUKALDE ALTZARIAK
AROZTEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)


## ELEKTRIZITATEA


Tfnda: 943-530356
Mobila 688-674242
Barrena, 21 - 3. A
ALBERTO ELEKTRIZITATEA
DASILVAALBERTO@HOTMAIL.ES
INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA

ELECTRICIDAD CUADRA EC
Barrena 26 / 20.600 Eibar/ T.943 121642 / F.943 204307/ ec@electricidadcuadra.com
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA MANTENUA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK

GURIA
ELEKTRIZITATEA
Muntaia eta proiektu elektrikoak
Matsaria 2
7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95
Fax. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

Ego-Gain, 9 ac.
ARGIZTAPENA, KONPONKETAK ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ibarra
677 51 24 62
943 20 06 97


## GARBIKETAK


Limpieza Multiservicio Eibar
Superfizie mota guztietako **garbiketa** eta **mantenimendu** zerbitzua
Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171
Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta mantenimendua

# Informazio gehiagorako

943 20 67 76

## HODI-LIBRATZEAK

**ATAX**
— Hodi-libratzeak
— Saneamenduen garbitzea presio handiko makinariarekin
— Ur ateratzea ufalen ondoren
www.desataxcos.com
LARRIALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

## IGELTSEROAK

IGELTSERITZA
CAMILO ALVAREZ
OROKORREAN
– **Barne erreformak** (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
– **Gremioen koordinaketa**
**Jardiñeta, 25** - behea
620 060 104 (Ernesto)
600 465 789 (Fran)

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA
eraikuntzak erreformak igeltseritza
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

Gasa
Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia
Fontanería Jardines
Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929
Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

K21
MUGICA
ITURGINTZA
AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...
**HANSGROHE** KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA
Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskaltel.net
☎ eta faxa: 943 20 39 03
ERAKUSKETA: Arikitxaneko Zubia

## PINTURAK

DECORACIONES AIXA
José Luis Iriondo
Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak
Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21
Tel/Fax: 943 20 19 22

PINTURAS ARRATE, S.L.
• Nexa Autocolor
• Pintura industriala
• 3M produktuen banatzailea
MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

MALVAR PINTURAS
Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN
BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

# Udako ikastaroetan murgilduta

Aurreko astean hasi ziren Udako Euskal Unibertsitatearen Udako Ikastaroak Eibarren, Markeskua jauregian. Eguaztenean, berriz, Baionakoak hasi ziren eta datorren astelehenean berriz ere Eibarrera bueltatuko da hilaren 19ra arte emango duten ikastaro sorta berria. Iruñean uztailaren 22tik 24ra eskainiko dituzten ikastaroekin agurtuko dute udako eskaintzaren 41. edizioa, orotara 41 ikastaro eman eta gero. Horrez gain, saio osagarriak ere antolatu dituzte, tartean Eibarren egingo diren topaketa bi: uztailaren 18an "Matematikari Euskaldunen I. Topaketak" hartuko ditu Markeskuak eta hurrengo egunean, hilaren 19an, "Pedagogia I. Topaketak: nola lortu dezakegu Euskal Herrian eskola inklusiboa?" izenburukoa. Uztailaren 4an, bestalde, Hizkuntzalari Euskaldunen I. Topaketan egungo ikerlerroak aztertu zituzten.



*Mari Luz Estebanen "Gorputza eta generoa" ikastaroa.*

## Galder Guenaga

### "Fluxu-egoeran pertsonak arreta osoa helburu errealista batean zentratzen du, gustuko duen jardueraren bitartez"



***Galder Guenaga UEUko Ekonomia Saileko kideak eta Bilboko Enpresa-Zientzien Unibertsitate Eskolako irakasleak (EHU) eta ueukideak*** "Lidergoa, emozioak eta fluxua erakundeetan" hitzaldia eskaini zuen aurreko astean Markeskuan. Guenagak bere ikerketa-lan batean oinarritutako *"fluxu-egoera"* kontzeptuari buruzko azalpenak eman zituen. Esandakoari jarraituta, fluxu-egoera *"gure gorputza nahiz burmuina baliotsua eta eskuragaitza den zerbait lortzeko borondatezko ahalegintzen direnean"* gertatzen da.

Egoera horretan pertsonak bere arreta osoa helburu errealista batean zentratzen du duela dio irakasle eibartarrak, gustuko duen jarduera baten bitartez: *"Kaosa (beldurra, antsietatea, estresa…) desagerraraziz, pertsonak indar psikiko guztia bere jarduera aplikatzen du, kontzentrazio handiz, eta horrek aurrez finkatutako erronka lortzea ahalbidetzen du"*. Eta, gehienok kontrakoa pentsatu arren, fluxu-esperientzia batez ere beharrean, enpresetan gertatzen omen da".



## Ane Ablanedo Larrion

### "Hezkuntza aldatuta, gizartea aldatu daiteke"

***Ane Ablanedok "Hezkuntza-sistema alternatiboak, gizarte aldaketarako tresna eta gako" ikastaroa eman zuen aurreko astean*** eta, argi laga zuenez, *"gaur egungo sistemak gabezia asko ditu, duda barik"*, eta horri eusteko arrazoi nagusia *"botereari komeni zaiola"* pentsatzen du. Bere berbetan, *"gure gizartean erabat barneratuta eta onartuta dago umeek ikasgelan jarrita egon behar dutela"*.

Hezkuntzak pertsonak hezteko eta gizartearen parte izateko tresna izan beharko lukeen arren, gaur egungo sistemaren helburua bestelakoa dela irizten dio: *"Bizitzen ikastea, zoriontsu izatea, bizi poza izatea... horiek izan beharko lirateke helburu nagusiak eta ez orain gertatzen den lez zerbitzari bilakatzea"*. Gauzak horrela, sistema errotik aldatzeko premia ikusten du: *"Gizakiok harremanen bidez ikasten dugu eta guztiak gara harreman horiek aldatzako gai, inork baimenik eman barik. Sarritan pentsatzen da umeak ikasteko gogorik ez duela, bere egiteko bakarra jolasa dela, baina agian jolasarekin beste edozerekin baino gehiago ikasi dezakeela ahaztu egiten dugu. Izan ere, umeek ikasteko nahia barru-barruan daukate"*. Hezkuntzan zein gutxi inbertitzen den salatu zuen Ablanedok, batez ere daukan garrantziari begiratuz gero. Izan ere, argi dauka *"hezkuntza aldatuta, gizartea aldatu daitekeela"*.

# Iñaki Segurola

## "300 URTE BARRU EZ DUT USTE EUSKARAK BIZIRIK IRAUNGO DUENIK"



**Hizkuntzalari Euskaldunen I. Topaketan hitzaldia eman zuen Iñaki Segurola idazle, filologo eta hiztegigileak**, "Igarri, ikertu, jakin?" izenburuari jarraituta. Hasieratik argi laga zuen berak ez dakiela hizkuntzalaritzan zer ikertu beharko litzatekeen, *"horretarako zer jakin behar dugun jakin beharko genuke-eta"*. Berak dioenez, *"ikerketei buruz erabakiak hartzen dituztenak diruaren baitan bizi dira. Hori hizkuntzalaritzan ez ezik beste alor guztietan gertatzen da, gainera"*. Segurolak uste du ikerlariei ez litzaiekeela esan beharko zer ikertu behar duten, *"ikertzeko gogoak bultzatuta mugitu beharko liratekeelako"*.

Hitzaldiko izenburuari helduta, Segurolak pentsatzen du hizkuntza oharkabeko jakintza modura interpretatu izan dela. Hau da, hizkuntza inkontzienteki barneratzen dugula. Baina ezagutza horiek ere ikerketa-prozesuan euren lekua dutela aldarrikatzen du. Izan ere, Segurolak dio hori dela ikertzea, *"ikertze logikoa baino errespetuzko lotura bailitzan hartu behar da, ikertuarekiko amodiozko elkarrizketa bat izango balitz moduan"*. Horrekin batera, ikerketari buruz eta doktoretza tesiei buruz ere egin zuen berba: *"Tesiek garai bateko soldadutzaren funtzioa betetzen dute, hau da, asmoa jendea nekatuta eta penaturik edukitzea da"*. Gainera, Segurolarentzat ikerketa eta jakintza ez datoz bat. Hitzaldiaren hasieran egindakoaren bidetik, berak zer ikertu beharko litzatekeen ez dakiela errepikatu zuen berbaldian, baina badaki, aldiz, zer ez den ikertu behar. Eta adibidetzat euskararen jatorria ipini zuen: *"Hizkuntza familia baten jatorri absolutura ailegatzeko modurik ez dago eta ez da sekula egongo. Hizkuntza bat bestea baino zaharragoa dela esateak ez dauka logikarik, hizkuntzan beti baitago jarraikortasun bat"*. Euskararen iraupenaz ere jardun zuen eta bere ustez *"300 urte barru penintsulako hizkuntza guztiak isildu egingo dira, gaztelania, portugesa eta euskara. Ingelesa gailenduko da besteen gainetik eta, agian, katalanak erdi-bizirik irautea lortuko du"*. Amaitu aurretik, "belarrimotz jakintsuei" kasu egitea ez dela komeni gaineratu zuen: *"Euskara zerbait maiuskuloa izango bailitzan hartu eta jende arruntaren gainetik jartzen dute, baina, azken batean, hizkuntza jende arruntaren asmakizuna da"*. Euskara batuak egin duen bide okerra ere azpimarratu zuen, hitz berriak asmatu, aldatu edota debekatzeko hedatu den ohitura gaitzetsita.

# Itziar Aduriz

## "TOPAKETA BEHARREZKOA ZEN HIZKUNTZALARIOK ZER GAREN ETA ZER EGITEN DUGUN JAKITEKO"

***Berrogeita hamar hizkuntzalari bildu zituen Hikuntzalari Euskaldunen I.Topaketak.** Itziar Aduriz eta Ruben Urizar UEU-ko Hizkuntzalaritza Sailburuek oso modu positiboan baloratu dute bilkura eta Itziar Adurizek topaketaren nondik norakoak kontatu dizkigu.*

***- Zergatik antolatu duzue horrelako topaketa?***

UEUk bazkideei deialdia luzatu zigun aurreko udan, koordinatzaile barik zeuden sailetarako sailburuak lortzeko asmoz eta, proposamena erakargarria egin zitzaidanez, eta Ixa taldeko kidea naizen aldetik, beharrari ekin nion. Besteak beste, tesiak egiten dihardutenen proiektuak ezagutzea interesgarria izango zela pentsatu genuen. Gainera ikasleak ere etorri zaizkigu topaketara eta, lehen aldia izateko, oso balorazio positiboa egiten dugu. Landutakoen artean gai nagusia ahozkotasuna izan da eta, horrekin batera, hizkeren eta hizkuntzen arteko aldakortasuna, gazteen hizkera eta beste batzuk landu ditugu.

***- Euskararen egoera zein den ikusita, hizkuntza zein ikuspegitik landu beharko litzateke?***

Soziolinguistarik ez nuen ikusi, baina uste dut arlo hori derrigorrez landu beharra dagoela euskararen jarraikortasuna bermatu aldera.




# Sankristobalen erreleboa ziurtatuta dago

**EDOZEIN EKIMEN ANTOLATZEKO SALTSATAN IBILTZERA OHITUTA DAGOENAK** ondo baino hobeto daki, behin horrelakoetan hasita, zeinen zaila izaten den erreleboa beste norbaiti pasatzea. Urte sasoi honetan gaudela, Eibarko auzoetako jaiak bata bestearen atzetik ospatzen dihardugu azken asteotan eta, horien aurkezpen ekitaldietan, urtero-urtero ordagoa botatzeko aprobetxatzen dute jai batzordeetako ordezkariek, norbait euren lekukoa hartzera animatuko den esperantzarekin. Baina hurrengo urtean berriz ere aurpegi berberak ikusten ditugu mahaiaren beste aldean ia beti.

Baina asteburu honetan ospatuko diren San Kristobalgo jaien aurkezpenean bestelako egoeraren lekuko izan ginen: prentsaurrekoan jaiak aurkezteko mahaian jarrita jai batzordeko kideen aurpegi ezagunak ikusi arren, prentsatik erdi ezkutatuta gazte mordoa atzera aurrera ikusi genituen eta, aurkezpena amaituta, kamarero profesionalen seriotasun berberarekin han batutakoentzat piskolabisa zerbitzen hasi ziren. Eta pintxo eta pintxo artean jai batzordekoen ahotik jakin genuenez, zerbitzatu zuten guztia gazteek eurek prestatu zuten, goiz osoa Otarra elkarteko sukaldean beharrean jardun eta gero. Gainera, egitaraua osatzeko orduan eta jaiak ospatzen dituzten egunetan laguntzen jarduten dutela gaineratu zuten batzordekoek. Eta irtetzean orain arte nekez entzun dugun esaldiarekin agurtu zituzten gonbidatuak jai batzordekoek, irrifartsu: "Hemen gazte guztiak martxan ipinita daude aspalditik. San Kristobalen urteetarako erreleboa ziurtatuta daukagu!".




*Erdi ezkutuan jarduten dute auzoko gazteek ahal duten guztian jai batzordeari laguntzen. Aurrekoan sukaldean tokatu zitzaien.*



## EGITARAUA:

### Barixakua 12

**19.00.-** ***Txupinazoa***. *Jaien hasiera.*
**19.05.-** *San Kristobal 2013 auzokide* ***omenduak***: *Jose Luis (pajaritos), Jesus Mª (Iparra) eta koadrila. Kalejira Orkestra taldearekin.*
**19.30.-** ***Haurrentzako jolasak*** *Fray Martin Mallea parkean. Umeendako dardo txapelketa (16 urtetik beherakoentzat). Tortilla, txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta auzoko tabernetan eta Jai Batzordearen barretan.*
**23.00.-** ***Kontzertua***. *Tinta Roja: Andres Calamaroren abestiekin.*
**00.00.-** ***Kontzertua***. *La noche Sabinera. Laguntzailea eta babeslea: Lambretta Eibar Kluba eta Jai Productions.*

### Zapatua 13

**10.30.-** ***Haurrentzako marrazki lehiaketa***.
**11.30.-** *Haurrentzako* ***"Molto" motorren kontzentrazio-lasterketa***.
**12.30.-** ***"Herri-sandiada"***. *Aizarnako parkean.*
**13.00.-** ***Lambretta motorren X. Igoera*** *San Kristobalera. Hamaiketakoa parte hartzen dutenentzat. Lambretta motorren erakusketa San Kristobalgo plazan.*
**18.00.-** ***Igel-toka txapelketa*** *(16 urtetik beherakoentzat).*
**19.30.-** ***Dardo txapelketa***, *nagusientzat. Aizarnako parkean.*
**21.00.-** ***Herri-afaria***. *Plazan.*
**23.00.-** ***60-70 hamarkadetako festa***. *Alcantara Show orkestra.*
**00.00.-** ***Kontzertua***: *Toñi Salazar.*
**01.30.-** ***Udako jaia***. *Alcantara Show orkestra.*
**03.00.-** ***Txokolate-jana***.

### Domeka 14

**11.00.-** ***Ohe-elastikoak, arku-tiroa eta xaboi-tailerra***. *Fray Martin Malleako parkean.*
**12.00.-** *Hildakoen aldeko* ***meza***. ***Oilasko-gisatu txapelketa***. *Plazoletan. Musika: Rod&Soud (Borja Rodriguez gitarra eta ahotsa) eta Naome Soud (biolina).*
**13.00.-** ***Piskolabisa*** *agertzen diren guztientzat, plazan.*
**13.45.-** *Txapelketaren amaiera eta* ***sari-banaketa***.
**17.30.-** ***Freskagarriak eta gozokiak*** *banatuko dizkiete umeei.*
**18.00.-** ***Zezentxo eta ponyak***, *Gorixorekin.*
**19.00.-** *Umeen marrazki lehiaketako eta beste jolasetako irabazleei* ***sariak banatzea***.
**19.30.-** ***DJ Araba festa***.
**20.30.-** ***Errifaren zozketa***.
**21.30.-** *Jaien* ***amaierako traka***.



AITOR ABANZABALEGI ARANGUREN
10. URTEURRENA

ZUK PIZTUTAKO izarraren
dir-dirak GUGAN DIRAU.

ZURE FAMILIA ETA LAGUNAK






kutxa

kutxabank

Escudería Eibar
www.escuderiaeibar.com

EIBARKO UDALA

Euskara eta kitto! Elkartea

bide
CENTRO DE RECONOCIMIENTO MEDICO-PSICOTECNICO
RECONOCIMIENTOS PARA CARNÉS DE CONDUCIR Y ARMAS
PERITAJES JUDICIALES PSICOLÓGICOS Y MÉDICOS
MAÑANAS: 10 A 1
TARDES: 4 A 6
Viernes tarde cerrado
Puente de Arikitxa, N.º 1 - Bajo
Tel. y Fax: 943 200 501
20.600 EIBAR
SÁBADOS ABIERTO DE 11 A 1

Talleres ASUA-ERREKA
Mecánica y electricidad del automóvil
Asua Erreka, 8 behea
20600 EIBAR Gipuzkoa
Tel eta Fax: 943 20 12 29
talleresasuaerreka@gmail.com


Eguneko menua
Menu bereziak
Karta...
943 208859
Terraza ederra / Bista paregabea
"Tiro Pitxon Jatetxea" ARRATE




TRANSPORTES GARRAIOAK LOIXOLA
Móvil: 686 466 966
Telef: 943 120 256
20600 EIBAR




# Ikusleentzako segurtasun gomendioak

Automobil probak guztioi segurtasun osoz ederki pasatzeko aukera ematen duten ikuskizunak izan daitezke, hemen aipatuko ditugun jarraibide jakin batzukkontuan hartzen baditugu,betiere. Bestela, familia edo lagunekin haize zabalean dibertitzeko planak atsekabe bat baino gehiago ekar diezaguke antolatzaile, pilotu eta zaleoi.

Ez dezagun ahaztu azken hauek direla istripuetan ahulenak; izan ere, pilotuak oso ondo babestuta egoten baitira eurenbidaiari-lekuetan, eta segurtasun arau zorrotzak bete behar dituzte honelako proba batean irteteko baimena lortu nahi badute.

Azkenaldian, automobil probatan gero eta ikusle gehiago izaten dira, neurri handi batean "Alonso" fenomenoa dela eta. Jende kopurua igotzeak gero eta gehiago zailtzen du antolatzaileek dena kontrolpean mantentzea; gainera, zaleek ez dute beti erantzukizunez eta kontzienteki jokatzen. Beraz, oso garrantzitsua iruditzen zaigu automobilismozaleei kirol honetaz segurtasun osoz gozatzeko jarraitu beharko lituzkeen eta arriskurik ez izateko argibideen berri ematea.

**ZER EGIN BEHAR DA?**

1- Garaiz iritsiko gara.Geure ibilgailua bereziki prestaturiko lekuetan aparkatzeko behar adina denbora hartuko dugu. Ibilbidea moztu egin ohi dute ibilgailuentzat lehen automobila atera baino ordu bete lehenago, gutxienez, eta horrez gain, auto-ilarak aurki ditzakegu.

2- Ibilbidetik kanpo aparkatuko dugu beti gure ibilgailua. (Garabiak eraman egin diezaguke bestela, edo isuna edo mailatua aurki ditzakegu bertan).




El Corte Inglés Eibar
Ego Gain, 7
Eibar (Gipuzkoa)
Tél: 943 708 800
Fax: 943 708 808




3- Gainera, lasterketa hasi baino lehenago toki seguru bateraino oinez iristeko behar adina denbora izan behar dugu. Behin lasterketa hasi ondoren lekuz aldatzeak arrisku handia dakar. Ibilgailuek dena ematen dute lehiatzeko, eta edozein unetan gerta daiteke istripua, ibilbidea erabat hutsik aurkitzea aurreikusten baitute.

4- Hotza, beroa edo euriari aurre egiteko jantzi egokiak eraman behar ditugu, behin lasterketa hasi ondoren ezingo baitugu ibilbidetik atera.

5- Antolatzaileek zakarrontzi eta edukiontziak jarri ohi dituzte ibilbide osoan.Errespeta ezazu ingurumena.

6- Haurrak gurasoen zaintzapean egon behar dira beti. Gogora ezazu ez direla arriskuaz konturatzen eta ahulenak direla.

7- Alkoholdun edari edo bestelako substantzia gehiegi hartzeak haserrekor, inkontziente eta lotsagabe bihur zaitzake. Ez ezazu kontrola galdu. Goza ezazu gure kirolaren giro onaz, eta denok pasatuko dugu ongi. Gogora ezazu alkoholemia eta abiadura kontrolak areagotu egiten direla lasterketaren inguruetan.

8- Jarrai itzazu beti boluntario eta antolatzaileen jarraibideak. Trata itzazu errespetuz eta izan zaitez jentil. Beraiek ez baleude, kirol hau ezinezkoa litzateke.

9- Zertara goazen jakin behar dugu, lasterketa amaitu arte ez baitigute, segurtasun arrazoiak direla eta, gure ibilgailuamugitzen utziko. Istripua gertatuz gero, baliteke atzerapenak gertatzea. Ez zaitez ernega.

10- Leku garaietan jarri behar dugu beti, arriskutsuak izan daitezkeen zonak ekidinez, ondorengo grafikoak zuriz eta gorriz adierazten duenaren arabera:

### EZ DUGU INOIZ EGIN BEHAR

**a)** Toki arriskutsuetan jarri. **b)** Hobeto ikusteko, edo pilotuak txalokatu edo animatzeko, ibilbidean sartu. **c)** Ibilbidera objektuak bota. **d)** Lasterketa hasi baino lehen edo amaitu ondoren, ibilbidean zure ibilgailuarekin modu desegokian ibili. **e)** Lehiatu nahi baduzu, egin ezazu baldintza egokietan.

### GOGORA EZAZU

Antolatzaileek proba bertan behera utz dezakete, edozein unetan kirolari eta ikusleentzat egoera arriskutsuak antzemanez gero. Ez gaitzazu erabaki hau hartzera behartu. Ikuskizuna den horren atzean, hainbatek egin dute lan hilabete askotan.

Pastelería San Andrés
Bidebarrieta, 28
Telf. 943 29 79 73
EIBAR

Umbe, s.l.
AUTO - RECAMBIOS
Holy-Auto
Barrena, 11
20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tlfn: 943 120 400 - 943 121 458
Fax: 943 702 065
email: umbeholyauto@hotmail.com

AZKENA TABERNA
T. Anitua 5 bajo
943- 120 922

ZORKI
Tfnoa: 943 702 131

TALLERES SABINO ARRIOLA y CÍA, S.A.
MECANIZACIÓN DE PIEZAS DE PRECISIÓN
Tel: 943 740 843
Fax: 943 748 737
Ermuaranbide, 16
20870 Elgoibar Gipuzkoa

FERRETERIA UNFEMA

El Corte Inglés

# Rallysprint-eko Euskal Txapelketa



## Gabiriako XV. Rallysprint-a

***(martxoak 3)***

David Ardions eta Iosu Agirrek irabazi zuten Gabiriako XV. Rallysprint-a, Mitsubishi EVO VII-arekin. Euskadiko Rallysprint Txapelketako lehen proba izan zen Gabiriakoa eta eguraldiak eta ikusle mordoak lagunduta antolatu zen. Irabazleek lehen eta hirugarren pasaldian egin zuten denborarik onena; hirugarrenekoa bikaina izan zen: bost segundoko aldea atera zieten atzekoei.

Bigarren postua Joxe Labaka eta Aitor Otaegi gaur egungo txapeldunek lortu zuten, Mitsubishi EVO V-arekin; 7 hamarren besterik ez zieten kendu Iban Tarsicio eta Iñigo Peñari (Mitsubishi EVO IX).

Klaseka ondorengoak izan ziren irabazleak: 6 klasean Tarsicio-Peña; 5 klasean Ardions-Agirre; 4 klasean Antxustegi-Urresti; 3 klasean Arana-Kobeaga; 2 klasean Mujika-Mujika eta 1 klasean Pejenaute-Vaz. Formula Librean, berriz, Txus Jaio eta Jesus Urkidi nagusitu ziren.

Lasterketan 44 parte-hartzailek jardun zuten eta horietatik 9k utzi behar izan zuten proba, gehienek matxura mekanikoengatik. Azkeneko urteetako lasterketarik azkarrenetakoa izan da Gabiriakoa, gertakari larririk ez baitzen gertatu.

## Hondarribiako VII. Rallysprint-a

***(martxoak 16)***

Gorka Eizmendik eta Haritz Olasagastik irabazi zuten Subaru Imprezarekin Hondarribiko VII. Rallysprint-a, 2013ko Euskadiko Rallysprint Txapelketako bigarren proba.

Irabazleek alokatutako autoarekin hartu zuten parte eta lehia bizia izan zuten Iban Tarsicio eta Iñigo Peña (Mitsubishi Evo IX) bikotearekin; lehenengo txandan denbora berbera egin zuten. Bigarren pasaldian bi taldeak neutralizatu zituzten David Ardions eta Iosu Agirrek izandako istripuarengatik. Horien Mitsubishiak lasterketa blokeatu zuen baina ez zuen zauriturik eragin.

Gauzak horrela, garaipena hirugarren pasaldian egon zen jokoan, eta bertan nagusitu ziren Eizmendi eta Olasagasti, Tarsicio eta Peñari ia bost segundoko aldea ateraz. Hirugarren postua Ander Aranak eta Arkaitz Kobeagak (Peugeot 309 Gti) eskuratu zuten, 17.27.6 denborarekin.

Lehen txandan euri apur bat egin zuen eta denbora tarte batean gune batzuetan lurra labainkor egon zen, baina hala ere, ia lasterketa osoan lurra siku egon zen.

Klaseka ondorengoak izan ziren irabazleak: 6 klasean Gorka Eizmendi eta Haritz Olasagasti (Subaru Impre-




Mail
Herramientas Especiales de Corte
C / Apalategi, 4 EIBAR Tlfno. 943 707 050
www.industriasmail.com

eco garbibox
auto-garbiketak
limpieza-vehículos
Pasamos I.T.V.
El Corte Inglés
Ego Gain, 7 -Eibar-
Tfnoak: 688.649.837 / 943.708.800

www.AUTO BOX.BIZ
ALQUILER DE BOXES
REPARA EL VEHÍCULO "TÚ MISMO"
O LO HACEMOS POR TÍ
Pol. Ind. Ibuerreka - Bº Olarreaga nº 38 - Eibar

EIBARTEL
Electrónica
Sistemas de Telecomunicación
Telefonía Móvil
Radio Teléfonos
Buscapersonas
Auto Radio
Energía Eólica y Solar
Roberto Vinacua
Pol. Ind. Olaso, 27 Pta. 1.ª, n.º 48 - Telf. 943 744 029 - Fax: 943 743 915
20870 ELGOIBAR (Guipúzcoa)

tms SPORT
Equipamiento integral de carrocerías para vehículos de competición
Lasterketako autoendako karrozerien ekipamendu integrala
Salvador, 21
20690 ELGETA
Tel.: 655 450 725
tms@tms-sport.com
www.tms-sport.com

MAPFRE
Alberto Fernández Prieto
San Juan, 7 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 34 13 - Fax 943 20 03 24

Coca-Cola

za); 5 klasean Iñigo Olabegogeaskoetxea eta Pablo Pelaez (BMW M3); 4 klasean Mattin Villares eta Andoni Blas nafarrak (Renault Clio); 3 klasean Ander Arana eta Arkaitz Kobeaga (Peugeot 309); 2 klasean Iñigo Izuzkiza eta Aritz Arzallus (Citroen Saxo) eta 1 klasean Yon Pejenaute eta Luismi Vaz (Citroen Saxo). Formula Libreko garaileak Txus Jaio eta Jesus Urkidi (BMW) izan ziren, eta junior talderik onena berriz, Odei eta Iban Garzonek osatutakoa (Citroen Saxo).

### *Ñañarriko VI. Rallysprint-a (apirilak 20)*

Aingeru eta Angel Castrok irabazi zuten Ñañarriko VI. Rallysprint-a, 2013ko Euskadiko Rallysprint Txapelketako hirugarren proba puntuagarria.

Lasterketa ohiko tartean egin zen, Alegiatik irten eta Abaltsiketatik pasa ondoren, Amezketan amaitzeko. 10,5 km guztira eta hiru pasaldi.



Lasterketa osoan Iñigo Olabegogeaskoetxea eta Iñaki Narbaiza izan ziren liderrak, erregistrorik onenak eginez, baina euren BMW M3-k izandako matxurak probatik kanpo laga zituen helmugara iristear zeudenean. Azkenean Aingeru eta Angel Castro nagusitu ziren Jon Davoz eta Vicky Gorrizen (Mitsubishi EVO IX) aurretik. Podiumeko hirugarren postua Mattin Villares eta Andoni Blas nafarrek (Renault Clio Sport) eraman zuten.

Lasterketa erritmo onean joan zen eta ezarritako ordutegiak bete ziren, nahiz eta hainbat istripurengatik proba gelditu behar izan zuten: Markos Landa eta Joseba Iturriozen Opel Kadet-ak kolpe handia hartu zuen Orendaineko gainera iristen zeudenean, eta Xemark Iriondo eta Mikel Marin-en BMW 325 lasterketatik irten zen ia zatiaren amaieran.

Klaseka ondorengoak izan ziren irabazleak: 1 klasean Iñigo Yon Pejenaute eta Luismi Vaz (Citroen Saxo); 2 klasean Egoitz eta Xabi Mujika (Saxo VTS); 3 klasean Ander Arana eta Arkaitz Kobeaga (Peugeot 309); 4 klasean Mattin Villares eta Andoni Blas (Renault Clio Sport); 5 klasean Aingeru eta Angel Castro (BMW M3), eta 9 klasean edo historikoetan Jon Davos eta Vicky Gorriz (Mitsubishi EVO IX) eta Josu Solozabal eta Lander Mella (Porsche 911 SC).

### *Azpeitiako XIV. Rallysprint-a (maiatzak 4)*

Gorka Antxustegik eta Xabat Urrestik (Peugeot 205 F1) irabazi zuten Azpeitiako XIV. Rallysprint-a, 2013ko Euskadiko Rallysprint Txapelketarako laugarren proba puntuagarria.

Lasterketa aurreko edizioko ibilbide beretik egin zen eta beraz, bideak bi gune erabat ezberdin zituen, horietatik lehena zabala baina behin bidegurutzea hartuta asko estutzen zena.

Lehenengo pasaldian denborarik onena Aingeru eta Angel Castrok (BMW M3) egin zuten, baina euren poztasunak ez zuen asko iraun, ibilbide erdian TC-2n, matxura mekanikoa izan eta lasterketatik kanpo gelditu ziren-eta. Hortik aurrera argi geratu zen lasterketa hiru bikoteren artean zegoela jokoan: Gorka Antxustegi eta Xabat Urresti, Joxe Labaka eta Eli Bergara (Mitsubishi EVO V) eta Iker Gayoso eta Diego Fernandez (Mitsubishi EVO IX-denboraldi honetan N+ra pasatu dira).

Hirugarren pasaldiak erabakiko zuen lasterketa; izan ere, Gorka Antxustegik eta Xabat Urrestik 6.16.5-ra jaitsi zuten beren denbora eta Joxe Labaka eta Eli Bergara bikoteari 8 segundo-hamarreneko tartea kenduz irabazi zuten proba. Iker Gayoso eta Diego Fernandez izan ziren hirugarrenak.



Hainbat parte-hartzailek proba laga behar izan zuten, horietako batzuk zauriturik eragin ez zuten istripuengatik.

Klaseka ondorengoak izan ziren irabazleak: 1 klasean Ibai Agirre eta Ander Ginea (Peugeot 196); 2 klasean Egoitz eta Xabi Mujika (Saxo VTS); 3 klasean Ander Arana eta Arkaitz Kobeaga (Peugeot 309); 4 klasean Gorka Antxustegi eta Xabat Urresti (Peugeot 205 F1), 9 klasean edo historikoetan Joxe Labaka eta Eli Bergara (Mitsubishi EVO V), Iker Gayoso eta Diego Fernandez (Mitsubishi EVO IX) eta Egoi Muguerza eta Felix Elosegi (Opel Manta). Formula Libreko Euskal Trofeoan Jonathan Gago eta Aitor Bergara (BMW E30) izan ziren garaile.

### *Goierri-San Benito I. Rallysprint-a (ekainak 1)*

Iker Gayosok eta Diego Fernandezek (Mitsubishi EVO IX) irabazi zuten Goierri-San Benito Rallysprint-aren lehen edizioa, Lazkaoko San Benito Ikastolaren 50. Urteurreneko ospakizunen barruan.

Proba erlojuaren kontrako ia 16 kilometroko lasterketa izan zen, Lazkaotik irten, Lazkaomenditik Zaldibiara, handik Gainzara, ibilbide amaierako azken tartea jaisten hasi aurretik.

Lehen pasaldian Jon Davoz eta Vicky Gorrizek egin zuten denborarik onena Mitsubishi EVO IX-rekin, eta Gayoso eta Fernandezekin batera hamar minututik jaitsi ziren bakarrak izan ziren. Lehen txanda horretako hirugarrenak Ander Arana eta Arkaitz Kobeaga (Peugeot 309 GTI) izan ziren.




GORITZ S.A.

garajes garcía
ARITZ GARCÍA
GIOVANNI GARCÍA
Bidebarrieta, 39
Tel: 943 202 214
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

mazda KIA SUZUKI
JOSEBA GARCÍA
Barrena, 11 - Edif. Ayra Durex
Tel: 943 127 271
Fax: 943 204 304
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

MAPFRE
COELLO Y DOMINGUEZ, S.L.
Jon Coello Domínguez
Karabixa, 2 48260 ERMUA
Tfnoa: 943 173 393 / M: 628 94 75 74 / Faxa: 943 174 968
coellj@mapfre.com

Betiprest
Instalazio montaketa eta etxeko konponketak
Pintura
Iturgintza
Brikolajea
Sarraiagintza
Elektrizitatea
CRISTIAN PÉREZ
652 74 55 20
cristianperezba@hotmail.com

KULTU
pintxoak eta bokatak
Zuloagatarrak 3 - 943 208 439 - EIBAR

EGOKOP, S.L.L.
FOTOKIPIAK-LASER-KOLOREA
PLANOEN ERREPRODUKZIOA
ENKUADERNAZIOA
PLASTIFIKATUAK
FAX ZERBITZUA
EGOKOP, S.L.L.
Bidebarrieta, 46 behea
Postakutxa 3
20600 EIBAR

Bigarren pasaldia edo TC-2k markatu zuen probaren bilakaera. Alde batetik Davoz eta Gorrizen Mitsubishiak izandako motor-arazo batek denbora galarazi zien, eta Gayosok eta Fernandezek hori aprobetxatu eta liderrak jarri ziren, beren kronoa hamasei segundo jaitsiz. Beren denbora ere nabarmen jaitsi zutenak Joxe Labaka eta Aitor Otaegi izan ziren (Mitsubishi EVO V); hogei segundotan jaitsi zuten beren marka, probako hirugarren postua eskuratuz.



Klaseka ondorengoak izan ziren irabazleak: 6 klasean Gayoso eta Fernandez; 5 klasean Labaka eta Otaegi; 4 klasean Sanz eta Goikoetxea; 3 klasean Arana eta Kobeaga; 2 klasean Arrieta eta Aginaga eta 1 klasean Pejenaute eta Vaz. Formula Librean garaipena Iban Lopez eta Lander Mellarentzat (Renault 5 Gt Turbo) izan zen.

Lasterketa Euskadiko Sport Erregulartasuneko Txapelketarako puntuagarria ere bazen, eta irabazleak Manu Bilbao eta Jose Luis Ruiz Eguino izan ziren (Porsche 911 SC) 3,7 punturekin; bigarrenak, 2 hamarrenetara, Asier Santamaria eta Joseba Macías (VW Golf GTI), eta hirugarrenak, berriz, Imanol eta Xabier Zorroza (Mercedes E280).

### *San Migueleko XI. Rallysprint-a (ekainak 15)*

Iker Gayosok eta Diego Fernandezek (Mitsubishi EVO IX N+) irabazi zuten San Migueleko XI. Rallysprint-a, 2013ko Euskadiko Rallysprint Txapelketarako seigarren proba puntuagarria. Bolibarren hasi eta Munitibarren amaitu zen lasterketan Gayosok eta Fernandezek egin zuten denborarik onena ibilbideko hiru pasaldietan; denborarik onena ibilbideko bigarren pasaldian egin zuten.

Horri esker zortzi segundoko aldea kendu zieten sailkapen nagusian Iban Tarsicio eta Iñigo Peñari (Mitsubishi EVO IX N+); azken bikote horrek ere lasterketa bikaina egin zuen eta lortutako puntuei esker txapelketako lehen postuari eusten diote. Hirugarren postua Joxe Labaka eta Aitor Otaegirentzat izan zen (Mitsubishi EVO V), Tarsicio eta Peñak baino zazpi segundo gehiago eginez, eta txapelketako bigarren postura igo dira Ander Arana eta Arkaitz Kobeagari aurrea hartuz; zortea ez zen Arana eta Kobeagaren aldekoa izan eta beren Peugeot 309 GTI-ren palierra apurtu eta gero, lasterketa utzi egin behar izan zuten.

Klaseka ondorengoak izan ziren irabazleak: 2 klasean Iban Etxaniz eta Jexux Etxeberria (Renault Clio Sport); 3 klasean Rafa Diaz eta Xabier Petralanda (Renault Clio 16v); 4 klasean Jorge Rodriguez eta Ander Bikandi (Renault Clio Sport); 5 klasean Joxe Labaka eta Aitor Otaegi (Mitsubishi EVO V), eta 6 klasean Iker Gayoso eta Diego Fernandez (Mitsubishi EVO IX).

Formula Librean Txus Jaio eta Jesus Urkidi (BMW) izan ziren garaile Jonathan Gago eta Aitor Bergararen aurretik (BMW); hirugarrenak, berriz, Esteban Ibarrola eta Egoitz Odriozola (Mitsubishi EVO VI).



Audi
SEAT
ŠKODA
CLIENTES SUMAMENTE SATISFECHOS
Me gusta
EIBAR MOTOR
www.eibarmotor.com

# Euskadiko Rallysprint Txapelketa

**PILOTOAK**

1) Iban Tarsicio ....................148,25
2) Joxe Labaka .....................143,25
3) Ander Arana ....................117,00

**KOPILOTOAK**

1) Iban Garzón .......................60,00
2) Joseba Berasategi ............50,75
3) Ander Ginea .......................50,00

**KLASEAK**

***6 klasea***

1) Iban Tarsicio ...........................57
2) Iker Gayoso ............................27
3) Ander Learreta.......................15

***5 klasea***

1) Joxe Labaka .........................49,5
2) Xiker Aiertza...........................32
3) Aingeru Castro ...................30,5

***4 klasea***

1) Gorka Antxustegi ................24,5
2) Jesus Mª Zunzundegi..........21,5
3) Andoni Pérez.........................20

***3 klasea***

1) Ander Arana ...........................66
2) Iban Ruipérez ....................32,5
3) Joseba Frutos .....................16,5

***2 klasea***

1) Egoitz Mujika ........................49
2) Iñigo Izuzkiza......................42,5
3) Jon Zuazua ..........................27,5

***1 klasea***

1) Yon Pejenaute.......................64
2) Ibai Agirre ...........................24,5
3) Felix Martikorena ....................8

# Euskadiko Sport Erregulartasunaren Txapelketa

**PILOTOAK**

1) Manu Bilbao ...........................20
2) Asier Santamaria....................15
3) Imanol Zorroza ......................12
4) Koldobika Paniagua ..............10
5) Aitor Aranda .............................8

**KOPILOTOAK**

1) Jose Luis Ruiz de Egino ........20
2) Joseba Macias .......................15
3) Xabier Zorroza ......................12
4) Unai Urrestizala ....................10
5) Zugaitz Dañobeitia.................8

## NON ETA NOLA JARRAITU PROBA?

Lasterketak 10,4 kilometroko zati beretik hiru pasaldi egiten ditu, BI-3950 -54 Km eta GI-3950- 1.60 Km errepideetatik (Etxeberria eta Eibar Ixua bitartez lotzen duen errepidean). Irteera Etxeberria eta Barinaga artean egongo da, eta helmuga Iturburu Ikastolako bidegurutzetik 1.000 metro beherago.

| ORDUA | LEKUA |
|---|---|
| Une oro | www.escuderiaeibar.com-en (denborak on-line) |

**UZTAILAK 20**

| | |
|---|---|
| *Egun osoan* ...................... | Taldeen asistentziak Matsariako Poligonoan |
| *Goizez* .............................. | Kontrol teknikoak Untzaga Plazan |
| *12.00etatik aurrera* .......... | Ibilgailuen erakusketa, Txaltxa Zelain |
| *13.30etan* ......................... | GI-3950 eta BI-3950 errepideak itxi |
| *14.20etan* ......................... | Lasterketa-hasiera, 1. parte-hartzailearen irteera 54,0 Km-n BI-3950-ean (Etxeberria/Barinaga) |
| *18.15 aldera* ..................... | 1. parte-hartzailea helmugaratu El Corte Inglesen; ondoren, ibilgailuen erakusketa |
| *20.30etan* ......................... | Sari-banaketa Eibarko El Corte Ingles-en |

...eta kitto!
Euskara Elkartea

HAPPY FM
EIBAR 100.8

www.eibartv.com
la imagen de Eibar en la red

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

EIBAR MOTOR
www.eibarmotor.com




# 2013an automobilismoa berriro Eibarren

Sasoi zailak bizi ditugu, babesleak "jausten" zaizkigu, diru-laguntza publikoa geroz eta txikiagoa da, eta horretara iristea ere zaila, ikusleak ez datoz lehen adina, baina Escuderia Eibarrek gure hirian urtero proba bat antolatzeko konpromisoari eusten dio. Aurten berriz ere antolatuko dugu 2011n estreinatu genuen Rallysprint formatua; 2012an moduan Sport Erregulartasuna modalitatea sartuko dugu abiadura-taldeekin batera. Berriztu egin behar dugu, gugan sinesten dutenei pizgarria eskaini. Horregatik, aurten, Euskal Federazioaren Araudiak zehazten duenarekin batera, sari osagarriak ere eskainiko ditugu, gure babesle nagusiekin adostuta, parte-hartzaileen lehiakortasuna sustatu eta lasterketa ahalik eta erakargarriena izateko.

Rallysprint-a uztailaren 20an izango da, larunbata, euskal automobilismoaren historian oso ezaguna den ibilbidean. Hain zuzen, Barinaga-Ixua-Eibar ibilbidea (bi norabideetan) 70. hamarkadatik erabiltzen da rallyetan, baita nazioarte mailakoetan ere. Eta jakina, ibilbidearen zati bat Arrateko Igoera mitikoan erabilitakoarekin partekatuko da.

# Bidegunearen azalpena

III. El Corte Ingles-Eibar rallysprint-aren ibilbideak 10,4 km ditu. Hasiera Barinaga auzoan dauka, Etxeberrian. Oso hasiera azkarra du; Barinaga auzoa eta Aginagako bidegurutzea pasatu arte ibilbidea laua da, aldaparik gabekoa 3 bat km-tan. Gero, ibilbidea Ixua gainera arte igotzen da, beste 3 km-tan bihurgune itxi batzuk ditu baina zatirik handienean azkarra da. Behin Ixuako gainera ailegatuta ibilbideak beherantz egiten du, helmugara arte. 5 bat km izango dira, Arraterako bidegurutzean eskumara hartu eta Iturburu Ikastola baino pixka bat beherago amaitzen da. Zati horrek denetarik dauka, leku azkarrak zein geldoak.




Ibilbidean, ikusleek, lasterketa ikusteko leku asko dituzte. Hasiera azkarra eta goitik-beherako amaiera, baina ikusteko lekurik ederrenen artean Ixuako gaina azpimarratuko genuke. Asko mugitu gabe kotxeak tarte luze batean ikusteko aukera. Gainera, aparkalekua eta taberna ere bertan egongo dira.

Escudería Eibar
www.escuderiaeibar.com


EL PAIS

## MARA ZABALA

# “Air Europa da araudia ezohiko moduan aplikatzen bakarra”

*Bila joan barik, Mara Zabala eibartarra estatu mailako albistegietako protagonista bilakatu da orain dela gutxi, Air Europa konpainiarekin izandako aferarengatik: ekainaren amaiera aldera abioi konpainiarekin kontaktatu zuen, beste hamaika aldiz egin duen moduan, hegaldia eurekin erosita zuela eta, gurpildun aulkian dagoenez, horrelakoetan konpainiek eskaintzen duten asistentzia zerbitzua eskatzeko. Horraino dena normal, betiko martxan zihoan, baina zerbitzua eskatzeko deiarekin batera ailegatu zitzaion ezustekoa. Konpainiak "segurtasun neurriak betetzearren" hegaldia hartzea galarazi zion, beste batzuetan konpainia berberarekin hegan egin duen arren. Gertatutakoak oihartzun handia izan du, Marak berak kontatu digun moduan.*

***- Zergatik ukatu dizu Air Europak hegaldia hartzeko eskubidea?***

Asistentziarako eskaera egitean hegan egiterik ez nuela erantzun zidan neskak ere ezin izan zidan arrazoi garbirik eman. Gertatu zaidanak ez dauka ez hanka ez bururik, are gutxiago Air Europarekin aurretik bidaiatu dudanean. Kontua da horrelako kasuetan konpainiek jarraitu beharreko pausoak ez daudela bat ere argi, hau da, indarrean dagoen araudia bakoitzak bere modura interpretatzen duela. Hala ere, beste enpresetan ez da horrelakorik gertatzen, segurtasunerako araua denentzat berbera izanda ere, gurpildun aulkian dagoen bidaiari beste norbaitekin lagunduta joan ezean hegaldia hartzea ukatzen dion konpainia bakarra Air Europa da. Europa osoan, araudia ezohiko moduan aplikatzen diharduten bakarrak eurak dira.

***- Eta zeintzuk dira Air Europako abioi batera bakarrik sartzea galarazten dizuten segurtasun neurri horiek?***

Air Europak dioenez, eurek hartutako erabakiak araudiari zuzenean erantzuten dio. Esaten dutenez, araudian jasota dagoenez, edozein larrialdi egoera gertatzekotan bere kabuz hegazkinetik irtetzeko gauza ez den edozein derrigorrez norbaitek lagunduta egin beharko du hegan eta, bestela, laguntzaile barik, ezin izango du hegaldirik hartu. Baina Air Europa alde batera lagata, beste konpainia guztiek bestela aplikatzen dute arau berbera: segurtasunerako jarraibideak ulertzeko eta zure ebakuazioan laguntzeko gauza bazara inork lagundu barik har dezakezu hegaldia eta, beraz, bakarrik bidaiatu.

***- Zu zeu aurretik ere hamaika hegalditan bakarrik bidaiatutakoa zara, ezta?***

Bai, lan kontuengatik zein bestelako arrazoiengatik sarritan egiten dut hegan eta orain arte ez dut inoiz arazorik izan. Gainera, Air Europak emandako arrazoiak ez dauka inolako zentzurik: zer gertatzen da oso zaharra den norbaiten kasuan, adibidez? 90 urteko norbait hegazkinetik bakarrik irtetzeko gauza da? Baina horrelako kasuetan bakarrik bidaiatzen lagatzeko arazorik ez dago.

***- Bestela, zure eskubideen kontra gertatutako hau albo batera lagata, zailtasun handiak topatzen dituzu eguneroko zure bizitza beste edozeinen modura bizitzeko?***

Hiri bakoitza ezberdina da, toki bakoitzean aurkitzen duzun egoera bakarra eta berezia da. Orain Madrilen bizi naiz eta modu batean mugitzen naiz. Eibarrera joatean, berriz, bestelako egoerarekin topo egiten dut. Hasteko, Madrilen ez bezala, Eibarren aldapa mordoa dago. Herritar guztiak hiri barruan erraz mugitu ahal izateko pausoak etenbarik ematen dira, baina oraindik gauza asko geratzen da egiteke, adibidez espaloien rebajeari dagokionez.




**Isabel Irulegi Urizarbarrena**

*1. urteurrena: 2012-VII-30*

*Isil-isilik ibili da hemen: egitekoak egin,*
*bizitzekoak bizi, eta ibili bezain isilik*
*joan zaigu hemendik hara*
*Isiltasunera, Pakera.*

ZURE FAMILIA

# Nekane Tejedor igerilaria garaile Debako Trabesian

**Urbat-Urkotronik taldeko igerilariak 23 minutu eta 49 segundo** behar izan zituen milla nautikoa osatzeko behar diren 1.852 metroak egiten. Aitzol Arrillaga eta Martin Aizpiri eibartarrak, bestalde, bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu ziren gizonezkoen proban. Guztira 200 lagunetik gora izan ziren urtero egiten den proba horietan eta, proba horrekin batera, beste bi jokatu ziren aurretik: 150 metrokoa 11 urte arterakoentzat eta 500ekoa adin horretatik 14 urte arterakoentzat.



# Eibarko Koldo Lopezentzat Elgoibarko tenis torneoa

**Jony Taborcia ondarrutarrak irabazitako tenis torneo horretan,** Koldo Lopezek jubenil mailako txapela jantzi zuen, finalean Iker Entrena beste eibartar bati irabaziz (6-4 eta 6-4). Seniorretan Taborciak 6-3 eta 6-2 irabzi zion finalean Debako Markel Aranberriri. Infantiletan titulua Elgoibarko Paul Estebanentzat izan zen eta alebinetan Jon Gandiaga debarrarentzat.



*Lau mailetako guztietako irabazleak.* LUIS GARCIA

# Foball 7ko Kopa torneoa finalerdien bila

**Hilaren 3an hasi zen Kirol Patronatoak urtero sasoi honetan** antolatzen duen foball 7ko Kopa torneoa eta atzo zen jokatzekoa bigarren jardunaldia, final laurdenei dagokiena. Jardunaldi horretarako neurketak honakoak ziren: La Naranja Mekanika vs Olaso 46, E.G.S. vs Aguiñuas, Roketxe vs Recreativo de Juerga eta Flying Circus vs Aston Birra. Horko garaileek datorren martitzenean, hilaren 16an jokatuko dituzte finalerdiak. Finala handik bi egunera, 18an, jokatuko da 19.00etatik aurrera.



*Jardunaldiaren amaierako irabazleen talde-argazkia.* MIGUELON HURTADO

# Ermuko Kantabriako Etxea nagusi Eibar Hiria bolopalman

**Urtero Eibarko Kantabriako Etxeak antolatzen duen Eibar Hiria** bolo-palmako torneoaren 28. edizioa jokatu zen asteburuan, oraingoan Ermuko eta Eibarko taldeen arteko norgehiagokarekin. Prietoren agindutetara, Carlos Cifrianek, Andoni Ricok, Mikelek eta Said eta Brahim anaiek osatutako bisitarien taldea gehiago izan zen eibartarrek (Dani, Juan Carlos, Gorka, Miguel de los Toyos alkatea eta Juan Carlos Castañeda Kantabria Etxeko presidentea) osatutakoa baino. Guztiek parrillada batekin amaitu zuten eguna.

**Asola Berri eta Kantabriako Etxea, hautagai**

Bihar jakingo da, bestalde, gure herriko Asola Berri eta Kantabriako Etxea Pico Peñamellera Sari ospetsuetako XIX. edizioetan sarituak izango diren edo ez. Lehen aldia da Euskal Herriko ordezkari batzuk sari horietarako hautagai direla: biharko emaitza aldekoa bada, saria abuztuaren 10ean jasoko lukete.



*Deporreko mendizaleak Gorbea eta Aldamin mendiak atzean dituztela.* PERIKO IRIONDO

# Mendi emanaldia hilaren 17an

**Periko Iriondo Klub Deportiboko mendi batzordeko partaideak** gaur egun mendi taldekoek egiten diharduten "Euskal Herriko zeharkaldiaren" lehenengo etapetako irudiak eskainiko ditu Deporren bertan datorren asteko eguaztenean, hilaren 17an, 19.30etan hasita.

Klubeko mendizaleak, bestalde, euren irteerekin jarraitzen dute. Horrela, aurreko asteburuan hogei lagunek osatutako mendizaleek "mendi ezkutuarena" egin zuten Ubidean, Gaztelu mendiaren inguruan. Asteburu honetan, bestalde, Lizarrusti-Lekunberri izango da bete beharreko irteera.

# Jose Mari Arrazola, beteranoena Treparriscosen

**Ekainaren 22an, Quebrantahuesos ospetsuarekin batera** jokatzen den Treparriscos proba gogorrean sari berezia jaso zuen Jose Mari Arrazola eibartarrak, parte hartu zutenen artean beteranoena izateagatik. Hilabete honetan, 23an, beteko ditu 76 urte eibartarrak eta ondo eusten dio sasoiari "egun batean bai, bestean ez, errepidean egunero 50etik 80 kilometrora arteko distantzia eginez". Treparriscoseko 90 kilometroak 4 ordu eta 40 minututan egin zituen; aurretik Quebrantahuesos beste sei aldiz egindakoa da, azken urteotako beste hainbat Treparriscosekin.





LEIRE ITURBE

## Golf-a anexoan

**Aurreko zapatuan Eibar Golf Pitch¬Putt** klubak antolatutako golf torneoaren bigarren edizioa egin zen Ipuruako anexoan.

## Mikel Treviño Egileren fitxaketa

**Hegalean jokatzen duen Gasteizko jokalaria Aurrera taldetik** dator, azken denboraldian 3. mailan azpitxapeldun izan zen taldetik. Jokatutako 24 partidutan, 14 asistentzia eman ditu eta, horrez gain, 34 gol sartu. Areto-foballeko Debabarreneko talde nagusiak beste sei jokalari ditu azken denboralditik taldean jarraituko dutenak: Ekaitz Insausti eta Iker Oñederra atezainak eta Alex Alonso, Ivan Quintin, Raul Nieto eta Michael Vidal kantxako jokalariak.



## berriak

### FOBALLA

**Eibar Foball Taldea 2. A mailara igota, badaki non hasiko duen liga: Jaenen izango da abuztuaren hirugarren asteburuan. Aurredenboraldian bost partidu jokatuko ditu: aurkariak Reala, Mirandes, Athletic B, Beasain eta Sanse izango dira. Lehen taldean ibilitako Gorka Kijera da lehen fitxaketa, Espinekin harremanetan daude eta Xabi Iruretagoiena atezainak urtebete gehiago egingo du.**

### WATERPOLOA

**Gaur eta bihar Mutriku euskal waterpoloaren hiriburu bihurtuko da, han jokatuko baita Urrezko Balearen 7. edizioa. Hamabi talde senior, emakumezkoen lau, kadete mailakoen bi eta bost infantil hartuko dute parte, tartean Urbatekoak. Martitzenean, bestalde, gure herriko waterpolo eskola A Coruñara joango da hango nazioarteko torneoan parte hartzeko. Urbatek Euskal Herria ordezkatuko du Italia, Portugal eta estatuko beste taldeen artean.**



# Cielitoren kontzertu bi udako gauak girotzeko

**Udako gauak girotuko dituzte Cielito Musika Bandako musikariek** eta, horretarako, beste urte batzuetan egindakoaren bidetik, kontzertu bi eskainiko dituzte. Lehena gaur gauean bertan izango da, 23.00etan Toribio Etxebarria kalean (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan). Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen gaurko kontzerturako jazza aukeratu dute eta hauek dira egitaraua osatzen duten piezak: "St. Louis Blues March" (W.C. Handy), "The Blues Brothers Revue" (J. Bocook mold.), "Take five green onions" (Carlos Sanchez-Barba mold.), "Girl from Ipanema" (A. Erzilla mold.), "Soul Bossa" (Q. Jones), "Birdland" (J. Zawinul) eta "Benny Goodman Memories" (N. Iwai mold.). Eta bigarren emanaldia hilaren 26rako iragarrita zegoen arren, aurreratu egin dute eta datorren asteko barixakuan, uztailaren 19an izango da toki eta ordu berean.



# Hamargarrenez batuko dira Lambrettak

**Aurten hamar urte beteko dituen Lambretta motorren kontzentrazioa** asteburu honetan egingo da, San Kristobal jaien inguruan eta, betiko moduan, ekitaldietako batzuetan bat egingo dute auzoko jaiek eta motorzaleek, gaur gaueko kontzertuetan (22.45etan Tinta Rojak A. Calamaroren abestiak joko ditu eta jarraian, gauerdian "Noche Sabinera" hasiko da) gertatuko den moduan.

Zapatuan 09.00etatik 12.00etara motor-kontzentraziora etorritakoei akreditazioak egiten egongo dira Untzagan eta, ondoren, 12.30ak aldera kalejirari ekingo diote. 14.30etatik 17.30etara, berriz, Lambretta motorren erakusketa egongo da ikusgai El Corte Ingleseko plazan. Bien bitartean, 14.45etan bazkaria egingo dute motorzaleek, El Corte Ingleseko terrazan. Arratsalderako plana 17.30etan hasiko da, Lambretta motor gainean egingo duten irteerarekin eta eguna San Kristobalen agurtuko dute, 23.00etan auzoan hasiko den udako festarekin bat eginda. Domekan Lambretta motorretan eskualdean zehar irteera egingo dute, 10.30etatik aurrera. Handik bueltan 12.30etan parte-hartzaile guztiak kalejiran ibiliko dira Eibarko kaleetan, 14.00ak aldera datorren urtera arte agurtu baino lehen.



# Brontzezko Laus saria Gorka Aizpuruarentzat

**Aurreko asteko eguenean diseinu grafiko eta komunikazio arloko** 42. Laus sariak banatu zituzten eta Gorka Aizpurua eibartarrak diseinu grafikoan logotipo onenari Brontzezko Laus saria jaso zuen ekitaldian. Saritutako logotipoa "Chicken Kitchen" izenburukoa da, aurten beste hainbat lehiaketatan saritutako logotipo berbera. Eibartarraren lanek aurretik ere jaso dute Laus saririk: iazko edizioan zilarrezko Laus bi eraman zituen Aizpuruak eta 2006an beste sari bi eman zizkioten.

# Bertso-afarirako txartelak salgai

**Arrate bezperarako bertso afaria antolatu du** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Kantabria jatetxean 21.00etan hasiko den afaria amaitu eta jarraian bertsotan jardungo duten bertsolariak Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio izango dira. Afarirako txartelak salgai daude: lehenik eta behin bakarrik ...eta kitto!-ko bazkideei salduko zaizkie (bazkide bakoitzak txartel bat erosteko aukera izango du, 29'50 eurotan hilaren 19ra arte); txartela erosi nahi duten bazkideek ...eta kitto!-ko bulegora joan beharko dira (Urkizu 11, solairuartera), 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara. Bazkide ez direnentzat salmenta uztailaren 22an hasiko da, Sagar Bitza, Kultu eta Kantabria tabernetan (30 euro).





*Ondo gozatzeko aukera izango da beste behin Kantabrian. Iker Zubeldia lehenengo aldiz izango da bertso-afarian.* LEIRE ITURBE

# Goruntz abesbatza Alemaniatik bueltan


*Goruntz taldekoak Nurembergen ateratako argazkian.*

**Spirit Voices abesbatzak gonbidatuta, Goruntzeko emakumeak** Alemanian egon dira bidaian, sanjuanak inguruan: Teuschnitz-eko Gazteen Etxea inauguratzeko kontzertuan eibartarrek euskal abesti ezagunekin osatutako errepertorioa eskaini zuten. Betiko moduan, kontzertua emateaz gain hainbat toki ezagutzeko aprobetxatu dituzte Alemanian igarotako egunak eta, besteak beste, Munich, Nuremberg eta Bamberg bisitatu dituzte. Hurrengo emanaldia asteburu honetan, Amañako jaietan daukate, domekan Salvadorreko elizan 11.00etan hasiko den mezan. Bestalde, ekainaren 23ko zozketan saria 8.748 zenbakiarentzat izan zela azaldu dute Goruntzekoek.




# Zinea martitzen gauetan Karrikan

**Aste honetan ekin diote Bista Eder kaleko Karrika tabernan** pelikulak emateari eta datozen asteetan ere hala egiten jarraituko dute. Emanaldiak martitzen gauetan izango dira, 22.15etatik aurrera. Besteak beste "7 cajas" (Zuz: Lasse Hallström) eta "Intocable" (Zuz: Olivier Nakache) filmak ematea aurreikusita daukate, baina, edozein modutan ere, antolatzaileek programazioa osatzen laguntzeko jendearen proposamenak onartzeko prest daudela aurreratu dute.

## laburrak

### JSM BEKA

**Juan San Martin Bekarako deialdia egin dute Udalak eta UEUk: aurtengo ediziorako aukeratu duten ikerketa esparrua Kazetaritza da eta beka eskuratzen duenak 9.000 euro jasoko ditu bere lana garatzeko. Bekarako eskaerak irailaren 2tik urriaren 11ra arte jasoko dituzte, Pegoran, eta informazio gehiagorako ere bertara jo daiteke.**

### USTEKABE MUTRIKUN

**Urbat IKEren eskutik, bihar (zapatua) Mutrikun egingo den Waterpolo Hondartza Txapelketan saioa eskainiko dute Ustekabe fanfarrekoek. Txarangaren udarako agenda poliki-poliki betetzen doa, baina oraindik ere norbaitek interesa balu kontratatzeko aukera badagoela azaldu dute (informazio gehiago ustekabe.com-en).**

publi resa
- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...
PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

Izadi LORADENDA
- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM



*Ekainean, beste edozein ikaslek moduan, ikasturteari agur esan zioten Debabarrenako Esperientzia Eskolako ikasleek, bereziki horretarako antolatu zuten ekitaldian. Kurtso osoan ikaskide izan direnen argazkia eta beste edozein eskolatan ikasten dutenen talde argazkia, bata bestearen aldamenean ipiniz gero, badago ezberdintasunik: edozein ikastetxera joan eta gelaren batean sartuko bagintateke, salbuespenak salbuespen, ume eta gazteen aurpegiak baino ez genituzke aurkituko. Ez litzaiguke hala gertatuko, baina, Esperientzia Eskolara bisitan joanez gero. Hain zuzen ere, bertako ikasleak aipatu berri dugun salbuespen horietakoa liratekeelako. Izan ere, Esperientzia Eskolako ikasle izateko eskatzen duten baldintza ia bakarra 50 urte beteta izatea da. Hortik aurrera ez dago aparteko eskakizunik. Adin horretatik gorakoa izatea eta ikasteko gogoa izatea nahikoa dira Esperientzia Eskolako ateak pare-parean zabaltzeko.*

# ESPERIENTZIA ESKOLAK diru-laguntza barik ekin dio matrikulazioari



**ESPERIENTZIA ESKOLA DEBEGESA GARAPEN AGENTZIAREN ESKUTIK JAIO ZEN**, baina 2010/2011 kurtsoaz geroztik Ikastenek, Esperientzia Eskolako Ikasle Ohien elkarteak kudeatzen du. Hain zuzen ere, Esperientzia Eskolak ikasturtea amaitzen duen bakoitzean kurtso amaierako proiektua abiarazten du eta lehen promozioak martxan ipinitako proiektua Ikasten sortzea izan zen. Ikasle ohien elkartea sortzeak, gainera, oso helburu garbiei erantzutea bilatzen zuen: eskolak bere urteroko martxan ikasleentzat klaseak eskaintzen jarraitu arren, orotariko jakintza arloetan etenbarik trebatzen jarraitu nahi duen edozeinentzat saio osagarriak eskaintzea. Eta horretan dihardute oraindik ere, eskolaren kudeaketaz arduratzeaz gain urte osoan hamaika ekitaldi antolatzen. Horietako batzuk aipatzearren, asteroko hitzaldiak, Kaleetan Kantuz abesbatza, kafe-tertuliak, joskintza tailerra, sendabelarren foroa, mendi ibilaldiak... horiek eta beste asko jaio dira Ikasten elkartekoen ekimenez. Gainera, ekitaldi eta jarduera horiek edozein herritarrentzat zabalik daude, adina kontuan izan barik. Eta denak musutruk dira.

Hala ere, ikasturtea amaitu eta berehala berri txarrak jaso zituzten. Beste askori gertatu zaien moduan, Ikastenekoei ere instituzioek aplikatzen dihardute murrizketek kolpe latza eman die, Eusko Jaurlaritzak orain arte diruz-lagundutako eskolei subentzioa kentzea erabaki duela adierazi dieteeta. Hala ere, Ikastenek ez dauka atzera egiteko asmorik eta, euren berbetan, *"gauzak horrela egonda ere, gogotik beharrean jarraituko dugu, 50 urtetik gorakoentzat horren zoragarria den ekimenak biziraun dezan eta aurrerantzean ere interes sozial eta kultural handia duten saioak antolatzen segitzeko"*.


*Esperientzia Eskolako azken ikasturte amaieraren ekitaldia.*

Diru-laguntzarik ez dutela izango jakin bezain laster jarduerak finantziatzeko bide berriak jorratzeari ekin diote Ikasteneko arduradunek eta, besteak beste, Debabarrenako udaletara eta bertan dauden alderdi politikoetara jo dute babes bila. Horrekin batera *"patrozinatzaileak eta proiektuari laguntzeko prest egon daitezkeen pertsonak"* bilatzeko asmoa daukatela aurreratu dute: *"Orain arte Esperientzia Eskolatik irten diren bederatzi promozioetan jardun dugun 184 lagunok zalantza izpirik barik esan dezakegu eskola gu aberasteko lagungarria izan dela eta, gainera, hasi aurretik genituen itxaropen guztiak askorengatik gainditu dituela. Are gehiago, bertan hasi ginenetik nabarmen jaitsi da pilula eta bestelako sendagaietako gure kontsumoa, horrek Osakidetzarentzat dakarren aurrezpenarekin. Horregatik, laster hainbat jarduerarekin kalera irtengo garela aurreratu nahi diegu herritarrei eta, bide batez, ahal duten neurrian proiektuak aurrera egin dezan laguntzeko eskatu"*.

## hildakoak

- **Ricardo Rodriguez Bardanca.** 80 urte. 2013-VII-4.
- **Maritxu Agirrebeña Arriola.** 94 urte. 2013-VII-7.
- **Imanol Kobeaga Benedicto.** 86 urte. 2013-VII-7.

## jaiotakoak

- **Paula Andrea Perafan Mora.** 2013-VI-25.
- **Laura Arzuaga Petuchova.** 2013-VI-25.
- **Eneko Caballero Goikoetxea.** 2013-VI-30.
- **Izaro Rementeria Amiama.** 2013-VII-2.
- **Miren Otxandiano Uribeetxeberria.** 2013-VII-2.
- **Paula Otxandiano Uribeetxeberria.** 2013-VII-2.
- **Martina Sanchez Gutierrez.** 2013-VII-5.
- **Maialen Lizarralde Arroitajauregi.** 2013-VII-7.

Zorionak, JONE eta PABLO, astelehenian 11 urte egingo dozuez-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, JON Badiola Albizu, hillaren 17xan bi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Mirenen partez.



Zorionak, UXUE, hillaren 20xan zortzi urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa, printzesa!! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAIA, gure pitufina, gaur urtetxua betetzen dozu-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HARITZ, hillaren 19xan hiru urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OLATZ, gaur zazpi urte betetzen dozuzelako. Muxu bat Izar, aitxitxa eta gurasuen partez.



Zorionak, LIZAR, zure lehen urtebetetzian. Zeru sabaian ikusten dira hainbat izar, gure etxekuaren izena da Lizar. Muxu potolo bat.



Zorionak,GAIZKA Aristondo, gure txapeldunak gaur bost urte betetezn dittu-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak,IAN, hillaren 17xan urte bi beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Nadiaren partez.



Zorionak, NEREA Mallia, martitzenian 3 urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat aitxitxa-amama eta famelixa danaren partez.



Zorionak, MIREN, hillaren 22xan urte bi beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Amaiaren partez.



Zorionak, ANE, gure printzesak hillaren 18xan lau urte beteko dittu-eta. Zorionik beruana famelixaren partez, muaaaaa!



Zorionak, MAIALEN, printzesa, hillaren 29xan bost urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat Uxueren eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUNE, astelehenian bi batekuak datoz-eta. Muxu haundi bat famelixakuen partez.



Zorionak, ZOIHARTZE Elizegi Arriola, hillaren 15ian bost urte beteko dozuzelako. Etxekuen partez.



Zorionak, MALEN Agirrebeña, hillaren 18xan urtetxua egingo dozu-eta. Etxekuen partez.



Zorion aurreratuak, ELAIA! Gure katagorrixak hiru urte egingo dittu laster. Patxuak.



Zorionak, UNAI, gaur bederatzi urte egitten dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, AMETS, astelehenian bederatzi urte egingo dozuz-eta. Aitta, ama eta, batez be, Eiderren partez.



Zorionak, IRAIA eta JAVI, hillaren 27xan ezkontzen zarie-eta. Zuen famelixakuen partez, disfrutau egun horretaz eta zoriontsu izan.



Zorionak, ANER eta UXUE, gaur hiru urte betetzen dozuez-eta. Jarraittu holan, laguntxuak izaten. Eta muxu haundi bana etxekuen partez.



Zorionak domekan, AMATXO. Zure sagutxu MARKEL eta aitatxoren partez.



Zorionak, JOSU (zazpi urte) eta DANEL (urte bi), julixuan urtiak betetzen dozuezelako. Besarkada haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PAULE (bixar hiru urte egingo dozu) eta EKHI (San Juan egunian bost bete zenduazen). Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, ENARA eta EILIDH Kennedy Osoro, ekaiñaren 21ian jaixo ziñazien-eta. Muxu haundi bana etxeko guztien partez.

## Kanpora doiazenendako udaltzainguaren aholkuak

Urtero legez, oporraldixa heltzen danian eta gure ohiko bizilekutik alde egitten dogunian, kontuan hartu biharreko aholku batzuk gogoratu nahi deskue Udaltzaingotik:



– **Uraren eta gasaren** giltza **itxi**
– Ez laga ez bitxirik ezta balixoko bestelako gauzarik
– **Kontakturako telefono zenbaki bat laga** famelixako edo konfiantzazko auzoren bati, baitta buzoiko giltza be, **korrespondentzia jaso**tzeko
– **Atiak eta bentanak** ondo itxitta daguazela begiratu. Dana dala, ez da komeni persianak guztiz jaistia, horrek etxia hutsik daguala jakittera emoten dau-eta

Aurten be, Udaltzainguak herrittarrak gonbidatzen dittu oporretan egongo diran tokiixetako **helbidia komunikatzera**, holan etxietan edo komerziuetan gertau leiken edozein gorabehera dala-eta abisatzeko modua izateko.
Herrixan geratzen diraneri, bestalde, zeozer arrarua nabarittu ezkero **092** zenbakira deitzeko eskatzen detse.

## Udako ordutegi berezixak

**PEGORA**
– Julixuaren 1etik setienbriaren 15era arte, goizian bakarrik: 08.30-13.30
010 eta 943708400 telefono zenbakixetara deitzeko orduak: 08.00-14.00

**PORTALEA**
– Julixuan, astelehenetik barixakura: 09.00-20.30 (julixuaren 25ian eta 31n itxitta)
– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09.00-13.30 (abuztuaren 12tik 18ra itxitta)

**ARMAGINTZAREN MUSEOA**
– Julixuan, martitzenetik barixakura: 16.00-20.00
– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 10.00-13.30

**IPURUA KIROLDEGIXA**
– Abuztuan, astelehenetik zapatura: 09.00-13.00 eta 16.00-20.00
Domeka eta jaiegunetan: 09.00-13.00
Abuztuaren 5etik 18ra itxitta
Igerileku estalixa hillabete osuan itxitta.
Kanpoko igerilekua: 10.30-20.00

**UNBE KIROLGUNIA**
– Julixuaren 28tik abuztuaren 4ra itxitta
– Abuztuaren 6ttik 31ra, astelehenetik zapatura: 09.00-20.00;
Domeka eta jaiegunetan: 10.00-15.00

**ORBEA KIROLDEGIXA**
– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09.00-13.00 eta 16.00-19.00
Zapatuetan: 08.00-14.00
Domeka eta jaiegunetan itxitta

**ORBEA SPA**
– Abuztuan, 1etik 25era itxitta
26ttik aurrera, astelehenetik barixakura: 09.00-13.00 eta 16.00-19.00
Zapatuetan: 09.00-14.00
Domeka eta jaiegunetan itxitta




## Arraterako autobusa egunero

Astelehenetik barixakura, arratsaldeko 15.00etan irtengo da Eibartik. Zapatuetan, 14.00etan. Eta domeka eta jai-egunetan, lau izango dira goizetan: 09.00etan, 10.00etan, 11.00etan eta eguerdiko 13.00ean eta, arratsaldez, 18.00etan.
Oin dala gitxi martxan jarrittako udako ordutegixak hillaren amaiera arte bakarrik irauten dauenez, gero abuztuan ordutegi berezixaguak ezartzeko, eta iraillian barriro be betikora bueltatzeko, beste autobus eta tren ordutegixak kontsultatzeko, honako telefono zenbaki eta helbidiak dozuez eskura:
**Euskotren: 902-543210 attcliente@euskotren.es eta www.euskotren.es**
**Lurraldebus: 943-000117 www.lurraldebus.net**
**Pesa: 902-101210 www.pesa.net**

## INGURUKO JAIXAK

**JULIXUAN–**
**22xan, Madalenak:** DURANGO eta MUTRIKU.
**25ian, Santixauak:** ERMUA, ETXEBARRIA, GOIMENDI eta SORALUZE.
**26xan, Santanak:** ARRASATE eta MENDARO.
**31n, Saniñaziuak:** ANTZUOLA, AZPEITIA, ELORRIXO, GARAI eta LEKEITIXO.
**ABUZTUAN:**
**1ian, Kopraixak:** ITZIAR
**6xan, Sansalbadorrak:** EIBARko auzua;
**eta Gala eguna:** ZUMAIA.
**10ian, Sallobentiak:** ELGOIBARko auzua eta ERMUAko auzua.
**12xan:** Euskal Jaixa ZUMAIAn
**15ian, Andramaixak:** ARETXABALETA, AZKOITIA, EIBARko auzua, ELGETA, MALLABIA, ONDARRU eta SORALUZE.
**16xan, Sanrokiak:** DEBA, ELGOIBARko auzua eta MALLABIA.
**20xan:** Koadrila eguna ZUMAIAn.
**24an, Sanbartolomiak:** ELGOIBAR.
**31n, San Ramon Nonatuak:** MALLABIA.
**IRAILLIAN**
**1ian, Sanantoliñak:** LEKEITIXO.

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 3 | | | | |
| 2 | | 9 | | | | 4 | | 3 |
| 3 | 4 | | | | | | 6 | 8 |
| | 5 | | 4 | 2 | 1 | | 3 | |
| | | | | | | | | |
| | 9 | | 3 | 8 | 6 | | 7 | |
| 7 | 8 | | | | | | 2 | 5 |
| 5 | | 3 | | | | 7 | | 9 |
| | | | | 6 | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 3 | 2 | 9 | 4 | 1 | 8 | 5 | 7 |
| 7 | 1 | 9 | 6 | 5 | 8 | 3 | 2 | 4 |
| 8 | 5 | 4 | 3 | 7 | 2 | 1 | 6 | 9 |
| 3 | 9 | 1 | 4 | 2 | 6 | 7 | 8 | 5 |
| 4 | 7 | 8 | 1 | 9 | 5 | 2 | 3 | 6 |
| 2 | 6 | 5 | 8 | 3 | 7 | 9 | 4 | 1 |
| 9 | 8 | 7 | 2 | 6 | 4 | 5 | 1 | 3 |
| 1 | 4 | 3 | 5 | 8 | 9 | 6 | 7 | 2 |
| 5 | 2 | 6 | 7 | 1 | 3 | 4 | 9 | 8 |

AURREKOAREN EMAITZA

# farmaziak

✔ **barixakua 12**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ *Ibarrondo (Zeharkalea, 2)*

✔ **zapatua 13**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ *Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)*

✔ **domeka 14**
EGUN OSOZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **astelehena 15**
EGUN OSOZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✔ **martitzena 16**
EGUN OSOZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✔ **eguaztena 17**
EGUN OSOZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✔ **eguena 18**
EGUN OSOZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✔ **barixakua 19**
EGUN OSOZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✔ **zapatua 20**
EGUN OSOZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✔ **domeka 21**
EGUN OSOZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

✔ **astelehena 22**
EGUN OSOZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **martitzena 23**
EGUN OSOZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✔ **eguaztena 24**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ *Ibarrondo (Zeharkalea, 2)*

✔ **eguena 25**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ *Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)*

✔ **barixakua 26**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

✔ **zapatua 27**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **domeka 28**
EGUN OSOZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **astelehena 29**
EGUN OSOZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✔ **martitzena 30**
EGUN OSOZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

✔ **eguaztena 31**
EGUN OSOZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

## ABUZTUA

✔ **eguena 1**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **barixakua 2**
EGUN OSOZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **zapatua 3**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **domeka 4**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **astelehena 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **martitzena 6**
EGUN OSOZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **eguaztena 7**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **eguena 8**
EGUN OSOZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✔ **barixakua 9**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **zapatua 10**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **domeka 11**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **astelehena 12**
EGUN OSOZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✔ **martitzena 13**
EGUN OSOZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **eguaztena 14**
EGUN OSOZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

✔ **eguena 15**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **barixakua 16**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **zapatua 17**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **domeka 18**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **astelehena 19**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **martitzena 20**
EGUN OSOZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✔ **eguaztena 21**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **eguena 22**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

✔ **barixakua 23**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ *Ibarrondo (Zeharkalea, 2)*

✔ **zapatua 24**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ *Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)*

✔ **domeka 25**
EGUN OSOZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✔ **astelehena 26**
EGUN OSOZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✔ **martitzena 27**
EGUN OSOZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✔ **eguaztena 28**
EGUN OSOZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✔ **eguena 29**
EGUN OSOZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✔ **barixakua 30**
EGUN OSOZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✔ **zapatua 31**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

## IRAILA

✔ **domeka 1**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ *barrondo (Zeharkalea, 2)*

✔ **astelehena 2**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ *Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)*

✔ **martitzena 3**
EGUN OSOZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✔ **eguaztena 4**
EGUN OSOZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✔ **eguena 5**
EGUN OSOZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✔ **barixakua 6**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

## telefono jakingarriak

SOS deiak........................*112*
Pegora.............................*010*
Udaletxea..........*943 70 84 00*
Portalea.............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa......*943 20 15 25*
Mankomunitatea *943 70 07 99*
Debegesa..........*943 82 01 10*
KIUB.................*943 20 38 43*
Epaitegia...........*943 03 34 00*
Iberdrola...........*901 20 20 20*
Naturgas............*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak ..*943 46 46 22*
Gurutze Gorria...*943 22 22 22*
Mendaro osp......*943 03 28 00*
Anbulategia.......*943 03 25 00*
Torrekua...........*943 03 26 50*
Errepideak.........*902 11 20 88*
Ertzaintza..........*943 53 17 00*
Eusko Tren........*902 54 32 10*
Pesa..................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon.....*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen ..*650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Lanegunak (uztailean eta abuztuan): 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR**: Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# 1. Etxebizitza

## 1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko pisua salgai Amañan. 2 logela, 2 komun, trasteroa eta garajea. 70 m². Tel. 636-458967. Ricardo.
– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldea eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.
– Pisua salgai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Altzariekin eta berriztua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Eibarko erdialdean atikoa salgai. Logela bat. 17 m²ko terraza. Guztira 72 m² erabilgarriak. Berria. 220.000 euro. Tel. 647-952677.
– Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 / 635-728510.

## 1.2. Errentan

– Neskak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 679-910991.
– Pisua alokagai Errekatxun. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa. Dena jantzita. Sartzeko moduan. Tel. 659-757572.
– Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela, 2 komun eta terraza. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Leku lasaia eta ondo komunikatua. Sartzeko prest. Tel. 943-201294 / 645-728317.
– Pisua behar da errentan Eibarren. Tel. 657-156254.
– Pisua alokagai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Altzariekin eta berriztua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Urkizun logela biko pisua alokagai. Tel. 675-714404.
– Donostian udarako pisua alokagai. Hilabete osorako edo hamabostaldirako. dena kanpora begira. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 688-604025.

# 3. Lokalak

## 3.1. Salgai

– Martxan dagoen janari denda traspasatzen dut Elgetan. Tel. 683-630275.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 627-652870.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 649-086057.
– Erizain laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Esperientzia eta informeak. Tel. 616-607121 eta 943-207183. Marta.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean. Baita gauez ere. Auto propioa eta berehalako disponibilitatea. Tel. 600-005160.
– Emakumea eskaintzen da hoteleko kamarera jarduteko, sukaldari-laguntzaile moduan, garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak edo tabernak garbitzeko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 671-258740.– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 617-844142.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-884104.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Prestakuntza eta esperientzia. Erreferentziak. Tel. 628-658538.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 608-147559.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 686-052084.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-332871.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 675-578659.
– Sozio-sanitario teknikari euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera eta garbitzaile jarduteko. Tel. 650-455685.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 653-075865.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 603-608317.
– Gizon arduratsua eskaintzen da nagusiak, gaixoak edo dependienteak zaintzeko, baita ospitalean ere, eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 679-912841. Juan.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-526228.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Informeak. Tel. 608-487951.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako: sukaldari-laguntzaile, nagusiak zaintzeko. Tel. 688-302653.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako: etxeko lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu... Tel. 631-004374.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta hoteleko kamarera. Tel. 608-474923.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta edozein lanetarako. Tel. 695-804895.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Geriatria ezagutzak. Tel. 691-032502.
– Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-054894.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-337083.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 633-551995.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. Tel. 632-337083.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 634-887814.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 605-720298.
– Pedagogiako 3. mailako ikaslea eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Tel. 677-591982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 654-566314.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 625-895460. Carmen Maria.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 606-502567.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-517025.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 685-771734.
– Emakumea eskaintzen da jatetxean, harategian edo hiltegian lan egiteko. Tel. 606-278923 eta 631-315925.
– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-054894.

# 5. Irakaskuntza

## 5.2. Eskaintzak

– Unibertsitarioa eskaintzen da ingeles eta ikasketa-teknika klaseak emateko uztailean eta abuztuan. Esperientzia. Tel. 699-522514.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Itzioko DBH 4. mailako liburuak erosiko nituzke. Tel. 618-491604.
– Itzioko DBH 3. mailako liburuak salgai. Tel. 618-491604.
– Gurpildun aulkia salgai. WC-arekin (pixontzia). 125 euro. Tel. 943-120308.
– Bigarren eskuko neoprenoak salgai. Gizonezkoen L tailakoa eta 12-13 urtekoentzako beste batzuk. Tel. 665-726203.
– Orbea bizikleta salgai. Laranja kolorekoa. 8-10 urteko umearentzako. Tel. 943-127368.
– DBHko 3. mailako eskolako liburuak erosiko nituzke. Tel. 665-707336.

## 6.4. Bestelakoak

– 3 urteko txakurra familia bila. Bodeguero andaluz arrazakoa, txikia eta zuria emango genuke adopzioan. Tel. 660-936862.

**iraila 7 zapatua 21.00**

# ARRATEKO BERTSO-AFARIA

**SARRERAK BAZKIDEENTZAT**
salgai 29'50 eurotan
(bazkide bakoitzak sarrera bana)
**uztailaren 19ra arte**
...eta kitto!-ko bulegoetan
10.00-14.00 eta 17.00-20.00

**BAZKIDE EZ DIRENENTZAT**
salgai 30'00 eurotan
**uztailaren 22tik aurrera**
Sagar Bitza, Kultu eta Kantabria
tabernetan




...eta kitto!-ren
**itzulpen zerbitzua**



ERA GUZTIETAKO TESTUAK
**ITZULTZEN DITUGU,**
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.

- Urte askotako **ESPERIENTZIA dugu.**
- Bezeroaren beharretara **EGOKITUko gara.**



elkartea@etakitto.com

# Zumaian

**2 eta 3 logelako etxebizitzak igerilekuarekin**

# ortiz





Diseinu paregabea eta kalitatezko materialekin egindako etxebizitzak, garajeak eta trastelekuak, igerileku eta guzti

GOZATU LUXUAZ
KALITATE-PREZIO
EZIN HOBEAN






**Zirkulu zurian** ORTIZ BIZIGUNEA
Axular Ibiltokia, 18an

| 2 logelakoak | 3 logelakoak |
| --- | --- |
| 170.000 €tik aurrera | 240.000 €tik aurrera |

**Sustatzailea**

inmoloiola

**Eraikitzailea**

ALTUNA Y URIA S.A.
CONSTRUCCIONES

**Salmenta Puntua**

Ibaigain
Agencia inmobiliaria

INMOZUMAIA

Telefonoa
**606 957 532**

E-posta
**info@inmoloiola.com**

Web orria
**zumaianbizi.com**